

Samsung GT-S5620

Erabiltzailearen eskuliburua

SAMSUNG

Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua



Baliteke eskuliburu honen edukia zure telefonoarekin erabat bat ez etortzea, telefonoaren softwarearen edo zure zerbitzu-hornitzailearen arabera.

SAMSUNG ELECTRONICS



Adostasun-deklarazioaren laburpena

SAMSUNG-ek adierazten du, bere ardurapean, tresna honek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko martxoaren 9ko 99/05/EE Direktiban finkatutakoa betetzen duela; Direktiba hori azaroaren 20ko 1890/2000 Errege Dekretuaren bidez egokitu zen espainiar estatuko legeriara.

World Wide Web

<http://www.samsungmobile.com>

Korean inprimatua

Code No.:GH68-27446A

Spanish. 01/2010. Rev. 1.0

GT-S5620

Erabiltzailearen eskuliburua



Eskuliburuaren erabilera

Zure telefonoaren funtzioak eta ezaugarriak azaltzeko bereziki diseinatua da erabiltzailearen eskuliburu hau. Azkar hasteko, ikus “Telefono mugikorraren sarrera” “Telefono mugikorra instalatzea eta muntatzea” eta “Funtzio nagusien erabilera”.

Jakinarazpenak egiteko ikonoak

Hasi aurretik, eskuliburu honetan agertzen diren ikonoak ezagutzea komeni da:



Ohartarazpena: zure telefonoa edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak




Kontuz: zure gailua edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak



Oharra: oharrak, erabilera-gomendioak eta informazio gehigarria

- ▶ **Ikus:** lotutako informazioa duten orrialdeak. Adibidez ▶ 12. or (esan nahi du 12. orria ikusi behar duzula)

- **Ondoren:** pauso bat emateko hautatu behar dituzun aukeren edo menuen ordena. Adibidez: Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Mezua sortu** (hau esan nahi du: sakatu **Mezuak**, eta, ondoren, **Mezua sortu**).
- [] **Kortxeteak:** telefonoko teklak.
Adibidez: [] (pizteko eta menuetatik irteteko tekla)
- < > Parentesi angeluarrak: pantaila bakoitzeko funtzioak kontrolatzen dituzten tekla programagarriak.
Adibidez: <Ados> (**OK** funtzio-tekla)

Copyright-aren informazioa

Gailu honen teknologia eta produktu guztien eskubideak haien jabeenak dira.

- Bluetooth SIG, Inc.-en marka komertzial erregistratua da Bluetooth®, mundu osoan.
Bluetooth QD ID: B015943.
- Java® Sun Microsystems, Inc.-en marka komertziala da.
- Microsoft Corporation-en marka komertzial erregistratua da Windows®-en multimedia erreproduzitzailea.
- Wi-Fi®, the Wi-Fi CERTIFIED logo, and the Wi-Fi logo are registered trademarks of the Wi-Fi Alliance.

CE0168!

edukia

Erabilerari eta segurtasunari buruzko informazioa	1
Segurtasunari buruzko oharrak.....	1
Segurtasun-neurriak	4
Erabilerari buruzko informazio garrantzitsua.....	6
Telefono mugikorraren sarrera	12
Bilgarria kentzea	12
Telefonoaren diseinua.....	13
Teklak	14
Ikonoak.....	15
Telefono mugikorra instalatzea eta muntatzea	17
SIM edo USIM txartela eta bateria jartzea.....	17
Bateria kargatzea.....	19
Memoria-txartela sartzea (hautazkoa).....	20
Eskurako zinta jartzea (hautazkoa)	21

Oinarrizko funtzioen erabilera.....22

Telefonoa piztea eta itzaltzea.....	22
Ukipen-pantaila erabiltzea.....	23
Menuetara sartzea.....	24
Aplikazioak aldatzea.....	25
Widget-ak erabiltzea.....	25
Laguntza-informaziora sartzea	26
Telefonoa pertsonalizatzea.....	27
Deien oinarrizko funtzioak erabiltzea.....	30
Mezuak jasotzea eta bistaratzea.....	31
Kontaktuak gehitzea eta bilatzea.....	33
Kameraren oinarrizko funtzioak erabiltzea.....	33
Musika erreproduzitzea	35
Web-ean nabigatzea.....	37
Google-ren zerbitzuak erabiltzea.....	38
Facebook-era konektatzea.....	39
MySpace-ra konektatzea	40

Funtzio aurreratuak erabiltzea.....41

Deien funtzio aurreratuak erabiltzea.....	41
Kontaktuen funtzio aurreratuak erabiltzea.....	44

Mezularitzako funtzio aurreratuak erabiltzea.....	45
Kameraren funtzio aurreratuak erabiltzea	47
Musikaren funtzio aurreratuak erabiltzea	50

Tresnak eta aplikazioak erabiltzea55

Bluetooth haririk gabeko funtzioa erabiltzea	55
Haririk gabeko sare lokal bat aktibatzea eta sare horretara konektatzea (WLAN).....	57
Larrialdiko mezu bat aktibatzea eta bidaltzea.....	58
Mugikor-bilatzailea aktibatzea.....	59
Geurrezko deiak egitea.....	59
Ahots-oharrak grabatzea eta erreproduzitzea.....	60
Irudiak editatzea	61
Irudiak inprimatzea	63
Webera argazkiak eta bideoak kargatzea.....	63
Java-rako jokoak eta aplikazioak erabiltzea	65
Datuak sinkronizatzea.....	66
RSS iturriak erabiltzea.....	67
Uneko posizioa bistaratzea	68
GPS funtzioa eguneratzea	68
Munduko erlojuak sortzea eta bistaratzea	68

Alarmak konfiguratzea eta erabiltzea.....	69
Kalkulagailua erabiltzea.....	70
Dibisak edo neurriak aldatzea.....	70
Atzera kontatzeko tenporizadore bat konfiguratzea	70
Kronometroa erabiltzea	70
Zeregin berriak sortzea.....	71
Ohar berriak sortzea.....	71
Egutegia administratzea.....	71
Arazoen konponketa.....	a
Aurkibidea	d

Erabilerari eta segurtasunari buruzko informazioa

Bete neurri hauek egoera arriskutsuak edo ilegalak saihesteko eta telefono mugikorraren errendimendua ahalik eta handiena izatea bermatzeko.



Segurtasunari buruzko oharrak

Ez utzi telefonoa hauren eta etxeko animalien eskueran.

Ez utzi telefonoa eta haren osagarriak hauren eta animalien eskueran. Pieza txikiek asfixia edo zauri larriak eragin ditzakete, irentsiz gero.

Babestu entzumena



Soinuen gehiegizko bolumen-mailak entzumenari kalte egin diezaioke. Jaitsi bolumena entzungailuak audio-iturri batera konektatu aurretik, eta erabili bolumen minimoa musika edo elkarrizketa entzuteko.

Kontuz instalatu telefono mugikorrak eta gainerako tresnak

Ziurtatu telefono mugikor osoa eta zure ibilgailuak instalatutako lotutako tresnak modu zurrean muntatuta daudela. Saiatu ez jartzen telefonoa eta osagarriak airbag-a zabaltzen den eremuan edo hortik hurbil. Haririk gabeko tresnak behar bezala instalatuta ez badaude eta airbag-a puztu egiten bada, zauri larriak eragin ditzake.

Kontuz erabili eta bota bateriak eta kargagailuak

- Samsung-ek onartutako eta bereziki telefonoarentzat diseinatutako bateriak eta kargagailuak soilik erabili. Bateragarriak ez diren bateriek eta kargagailuek kalte larriak eragin diezazkiokete telefonoari.
- Inoiz ez bota bateriak edo telefonoak sutara. Tokian tokiko arauen arabera bota erabilitako bateriak edo telefonoak.

- Ez jarri bateriak edo telefonoak beroa sortzen duten gailuen gainean, hala nola mikrouhin labeen, berogailuen edo erradiadoreen gainean edo barruan. Bateriak lehertu egin daitezke gehiegi berotuz gero.
- Inoiz ez zanpatu edo zulatu bateria. Ez jarri bateria atmosfera-presio handia dagoen lekuetan; barneko zirkuitu elektronikoak kaltetu edo gehiegi berotu daiteke.

Saiatu taupada-markagailuekin interferentziarik ez sortzen

Utzi gutxienez 15 cm-ko (6 hazbeteko) distantzia telefono mugikorren eta taupada markagailuen artean, interferentziarik egon ez dadin, fabrikatzaileen eta Wireless Technology Research ikerketa-talde independentearen gomendioei jarraituz. Telefonoak taupada-markagailu batean edo beste gailu medikoren batean interferentziak sortzen dituen zalantza baduzu, itzali telefonoa berehala eta jarri harremanetan taupada-markagailuaren edo gailu medikoaren fabrikatzailearekin laguntza eskatzeko.

Itzali telefonoa lehergaiak egon daitezkeen inguruetan

Ez erabili telefonoa gasolindegietan (zerbitzugunea), ez eta erregai edo produktu kimikoetatik gertu ere. Itzali telefonoa ohar-jarraibideek edo –seinaleek hala adierazten dutenean. Telefonoak leherketak edo suteak eragin ditzake erregaiak eta produktu kimikoak gordetzeko eremuetan eta leherketa-eremuetan edo haien inguruan. Ez biltegiratu eta ez eraman suak har dezakeen likidorik, gasik edo leher daitezkeen materialik, telefonoa eta haren piezak edo osagarriak doazen leku berean.

Murriztu itzazu behin eta berriro mugimendu bera egiteagatik sortutako lesioak

Gailua erabiltzean, eutsi eskua erlaxatuta duzula, kontuz sakatu teklak, erabili tekla gutxiago sakatzeko teklak (adibidez, txantiloiak eta testu prediktiboa) eta maiz hartu atseden.

Ez erabili telefonoa, pantaila pitzatuta edo hautsita badago.

Hautsitako beirak zauriak eragin ditzake eskuetan eta aurpegian. Eraman telefonoa Samsung-en zerbitzu-zentro batera, pantaila alda diezaioten. Erabilera arduragabeak eragindako kalteak direla-eta fabrikatzailearen bermea bertan behera gelditu daiteke.

KONTUZ



Segurtasun-neurriak

Arretaz gidatu beti

Ez erabili telefonoa gidatzen ari zarela, eta bete gidatzean mugikorra erabiltzea debekatzen duten arau guztiak. Ahal duzun guztietan, erabili esku libreko osagarriak segurtasun handiagoa izateko.

Bete segurtasuneko arau eta ohar guztiak

Bete zenbait eremutan mugikorrak erabiltzea debekatzen duten arau guztiak.

Erabili beti Samsung-ek baimendutako osagarriak

Bateragarriak ez diren osagarriak erabiliz gero, zure telefonoa kaltetu daiteke, edo zeu zauritu zaitezke.

Itzali telefonoa ekipo medikoetatik gertu zaudenean

Telefonoak interferentziak sor ditzake ospitaleetako osasuna zaintzeko zentroetako tresna medikoetan. Bete araudiak, argitaratutako ohartarazpenak eta pertsonal medikoak emandako jarraibideak.

Itzali telefonoa edo desaktibatu haririk gabeko funtzioak hegazkinean zoazela

Telefonoak interferentziak sor ditzake hegazkinaren tresnerian. Bete hegazkin-konpainiaren arau guztiak eta itzali zure telefonoa edo jarri haririk gabeko funtzioak desaktibatutako moduan, hegazkin-konpainiako langileek hala adierazten badute.

Saiatu bateriek eta kargagailuek kalterik izan ez dezaten

- Ez jarri bateriak tenperatura hotzegiak edo beroegiak dauden lekuetan (0 °C/32 °F-tik beherakoak edo 45 °C/115 °F-tik gorakoak). Muturreko tenperaturen kargatzeko gaitasuna eta baterien bizitza erabilgarria murriztu dezakete.
- Saiatu bateriak ez daitezen egon metalezko objektuekin kontaktuan; baterien + eta – terminalen konexioa sortu, eta betirako edo aldi baterako kaltea eragin daiteke.
- Ez erabili hondatutako kargagailu edo bateria bat.

Kontuz eta arretaz erabili telefonoa

- Ez desmuntatu telefonoa, elektrokutatzeko arriskua baitago.
- Telefonoa ez da busti behar: likidoek kalte larriak eragin ditzakete, eta urak telefonoaren barruan eragindako kalteak adierazteko etiketaren kolorea aldatu egingo da. Ez ukitu telefonoa eskuak bustita dituzula. Urak eragindako kalteak direla eta fabrikatzailearen bermea bertan behera gelditu daiteke.
- Ez erabili edo gorde telefonoa eremu zikinetan edo hautsa dagoen eremuetan, pieza mugikorrek kaltetu ez daitezen.
- Gailu elektronikoa konplexua da telefonoa; beraz, babestu ezazu kolpeetatik eta manipulazio zakarretatik, kalte larriak ez eragiteko.
- Ez margotu telefonoa; pinturak zati mugikorrek blokeatzen baditu ez dute behar bezala funtzionatu.

KONTUZ

- Ez erabili telefonoaren kameraren flasha edo argia haurren edo animalien begietatik hurbil.
- Ereku magnetikoetatik hurbil, gailua kaltetu egin daiteke. Ez erabili itxiera magnetikoak dituzten kutxatilak edo osagarriak, eta ez utzi telefonoa ereku magnetikoekin kontaktuan denbora luzez.

Saihestu beste gailu elektronikoen interferentziak izatea

Telefonoak irratia-maiztasuneko seinaleak igortzen ditu, eta horiek interferentziak eragin ditzakete babestu gabeko edo gaizki babestutako gailuetan; esaterako, taupada-markagailuetan, audifonoetan, etxeetako gailu medikoetan edo etxeetako edo ibilgailuetako beste edozein gailu elektronikotan. Jarri harremanetan gailu elektronikoen fabrikatzailearekin interferentzia-arazoak konpontzeko.



Erabilerari buruzko informazio garrantzitsua

Ez erabili telefonoa ohiko posizioan ez bada

Saiatu telefonoaren barneko antenarekin kontakturik ez izaten.

Langile adituei soilik utzi telefonoaren mantentze-lanak egiten

Adituak ez diren langileek telefonoaren mantentze-lanak eginez gero, telefonoa kaltetu daiteke, eta bermea bertan behera utzi.

Saiatu bateriak eta kargagailuak ahalik eta bizitza erabilgarri luzeena izan dezaten

- Ez kargatu bateriak astebetetz baino gehiagoz; galkargak iraupena murriztu dezake.
- Denborak aurrera egin ahala, erabili gabeko bateriak deskargatu egingo dira, eta berriro kargatu behar dira erabili aurretik.

- Erabili behar ez direnean, deskonektatu kargagailuak energia-iturrietatik.
- Erabili bateria diseinatutako helbururako bakarrik.

Kontuz erabili SIM txartelak eta memoria-txartelak

- Ez kendu txartelik telefonoa informazioa transferitzen edo erabiltzen ari dela; telefonoko edo txarteleko datuak galdu edo kaltetu daitezke.
- Babestu txartelak kolpe bortitzetatik, elektrizitate estatikotik eta beste gailu batzuek eragindako zarata elektrikotik.
- Sarri idazten eta ezabatzen arituz gero, memoria-txartelen bizitza erabilgarria murriztu egingo da.
- Ez ukitu urre koloreko kontaktuak edo terminalak behatzekin edo metalezko objektuekin. Txartela zikina badago, garbitu zapi leun batekin.

Bermatu larrialdi-zerbitzuetarako sarbidea

Baliteke zenbait leku edo egoeratan telefonotik larrialdi-deirik egin ezin izatea. Urruneko herrialdeetara edo garabidean daudenetara joan aurretik, planifikatu larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jartzeko metodo bat.

Absortzio espezifikokoaren tasaren ziurtagiriari buruzko informazioa (SAR, Specific Absorption Rate)

Irratien eta telekomunikazio-tresnen irrati-maiztasunaren energiarekiko esposizioa mugatzen duten Europako Batasuneko (EB) arauak betetzen ditu telefonoak. Arau hauek gehienezko esposizio-maila (absortzio espezifikokoaren tasa edo SAR deitua), hau da, 2,0 watt, gainditzen duten gailu mugikorren salmenta eragotzi egiten dute.

Proba-prozesuan, telefono-modelo honetarako gehieneko SAR balioa 1,02 watt/kg izan zen. Ohiko erabileran, gehieneko balioa baino dezente beherago egon ohi da SAR errealia; izan ere, hurbilen dagoen estaziora seinaleak igortzeko beharrezkoa den irrati-maiztasuneko energia soilik igortzeko diseinatua da telefonoa. Ahal izanez gero automatikoki maila txikiagoak igortzen dituzenez, telefonoak murriztu egiten du erabiltzaileak jasotzen duen irrati-maiztasuneko energia.

Erabiltzailearen eskuliburu honen atzealdeko adostasun-deklarazioak frogatzen du telefonoak betetzen duela telekomunikazioko ekipo terminalei buruzko Europako direktiba (R&TTE). SARi eta horren inguruko EBko arauari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus Samsung-en telefonia mugikorraren webgunea.

Produktu hau behar bezala botatzea

(Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak)



(Europako Batasunean eta hondakinen gaikako bilketako sistemak dituzten Europako beste herrialde batzuetan)

Produktuan, osagarrietan edo harekin batera doan material informatiboan ikur hori agertzen bada, horrek esan nahi du produktuaren edo haren osagarri elektronikoen (kargagailua, entzungailuak, USB kablea) biritza baliagarria amaitzean ez direla bota behar etxeko gainerako hondakinekin. Hondakinak kontrolik gabe botatzeagatik ingurumenari edo osasunari sor dakizkiokeen kalteak saihesteko, bereizi produktu horiek gainerako hondakinetatik, eta birziklatu behar bezala. Horrela, baliabide materialen berrerabilpen jasangarria bultzatzen da. Erabiltzaile partikularrak produktua erosi zuten saltokiarekin edo tokiko agintariekin harremanetan jar daitezke, modu ekologiko eta seguruan birziklatzeko nora eraman dezaketen jakiteko.

Enpresa-erabiltzaileak hornitzailearekin harremanetan jar daitezke, erosketa-kontratuaren baldintzen berri jakiteko. Produktu hau eta berekin dakartzan osagarri elektronikoak ez dira bota behar enpresako gainerako hondakinekin.

Produktu honen bateriak behar bezala botatzea



(Europako Batasunean eta baterien gaikako bilketako sistemak dituzten Europako beste herrialde batzuetan)

Produktuaren baterietan, eskuliburuan edo paketean marka hau badago, horrek esan nahi du baterien bizitza erabilgarria amaitzean ez direla bota behar etxeko beste hondakinekin batera. Markatuta badaude, Hg, Cd edo Pb ikur kimikoek esan nahi dute bateriak merkurioa, kadmioa edo beruna dituela EBren 2006/66 Direktiban erreferentziatzen jarritako balioen gainetik. Bateriak behar bezala botatzen ez badira, substantzia horiek norbaiten osasuna edo ingurumena kaltetu dezakete.

Baliabide naturalak babesteko eta birziklatzea bultzatzeko, bereizi bateriak gainerako hondakinetatik, eta birziklatu zure herriko doako bilketa-sistemaren bidez.

Erantzukizunetatik salbuesteko klausula

Gailu honen bidez erabil ditzakezun zenbait eduki edo zerbitzu beste hirugarren batzuenak dira, eta egile-eskubideen, patenteen, marka erregistratuen eta/edo jabetza intelektualeko beste zenbait legeren babespean daude. Eduki eta zerbitzu horiek erabilera pertsonalerako soilik ematen dira, ez enpresetan erabiltzeko. Baliteke edukiak edo zerbitzuak erabiltzerik ez izatea edukiaren jabeak edo zerbitzu-hornitzaileak baimendu ez duen moduren batean. Aurrez esandakoa alde batera utzi gabe, gailu honen bidez erakusten diren edukiak edo zerbitzuak ezin dira inolaz ere aldatu, kopia, berrargitaratu, kargatu, argitaratu, transmititu, itzuli, saldu, eratorritako obrarik sortu, ustiatu edo banatu, edukiaren jabeak edo zerbitzuen hornitzaileak espresuki baimena ematen ez badu behintzat.


EDUKIA ETA HIRUGARRENEN ZERBITZUAK “BERE HORRETAN” EMATEN DIRA. SAMSUNG-EK EZ DU EMANDAKO EDUKIEN NAHIZ ZERBITZUEN BERMERIK EMATEN, EZ ESPRESUKI, EZ INPLIZITUKI, HELBURUA EDOZEIN DELA ERE. SAMSUNG-EK ESPRESUKI EGITEN DIE UKO BERME INPLIZITU GUZTIEI; BESTEAK BESTE, MERKATURATZE-BERMEEI ETA XEDE JAKIN BATERAKO EGOKITASUNARI. SAMSUNG-EK EZ DU BERMATZEN GAILU HONEN BIDEZ ERABIL DAITEKEEN INONGO EDUKI EDO ZERBITZUREN EGIAZKOTASUNIK, BALIOZKOTASUNIK, ERREPRODUKZIORIK, LEGEZKOTASUNIK EDO OSOTASUNIK; HORREZ GAIN, SAMSUNG EZ DA INOIZ IZANGO EZ KONTRATU BIDEZ, EZ BIDEGABEKERIAZ (EZ ETA ZABARKERIAGATIK GERTATZEN DENEAN ERE), ZUZENeko KALTEEN, ZEHARKAKOEN, ISTRIPIUNGATIKOEN, BEREZIEN, ONDORIOZKOEN, ABOKATUEN ORDAINSARIEN, GASTUEN EDO HEMEN AGERTZEN DEN INFORMAZIOAREN ERABILERAREN ONDORIOZKO KALTEEN EDO HORRI LOTUTAKOEN ARDURADUN.

BESTALDE, EZ DA IZANGO ZURE EDO HIRUGARREN BATEN ERABILERAREN ONDORIOZKO KALTEEN ARDURADUN, EZ ETA KALTE HORI GERTA ZITEKEELA OHARTARAZI BAZEN ERE. Hirugarrenen zerbitzuak noiznahi amaitu edo eten daitezke, eta Samsung-ek ez du eskaintzen edukia edo zerbitzua inongo denbora-epetan erabilgarri egoteko ordezkartzarik nahiz bermerik. Edukia eta zerbitzuak transmisio-sareen eta -instalazioen bidez helarazten dituzte hirugarrenek, eta Samsung-ek ez du kontrolik horietan. Klausula honen orokortasuna mugatu gabe, Samsung-ek berariaz uko egiten dio gailu honen bidez erabil daitezkeen edozein eduki edo zerbitzu eteteari edo amaitzeari. Edukiari eta zerbitzuei lotutako bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren ardurarik ez du Samsung-ek. Edukiari edo zerbitzuei lotutako galdera edo eskaeraren bat izanez gero, zerbitzuen eta edukiaren hornitzaileei bidali behar zaie, zuzenean. Albumetatik Samsung-en musika-erreproduzitzaileran material grafikoa deskargatuz gero, material hori manipulatu, aldatu edo bestelakotu egingo da.

Albumetako material grafikoa baimenik gabe deskargatuz gero, baliteke albumetako material grafikoaren eta/edo artistaren eskubide moralen copyright-a ez betetzea.

Samsung-ek ez du onartzen, eta uko egiten dio erabiltzaileak albumetako material grafikoa Samsung-en musika-erreproduzitzailera deskargatzeagatik copyright-a edo eskubide moralak ez betetzeagatiko erantzukizunari.

Erabiltzaileek egiaztatu behar dute musika-hornitzailearen baimena dutela, lizentzia honen arabera, albumetako material grafikoa deskargatzeko eta aldatzeko.



Telefono mugikorraren sarrera

Atal honetan, zure telefono mugikorraren diseinuari, teklei, pantailari eta ikonoei buruz ikas dezakezu.

Bilgarria kentzea

Egiaztatu produktuaren kaxak elementu hauek dituela:


- Telefono mugikorra
- Bateria
- Kargagailua
- Erabiltzailearen eskuliburua



- Baliteke telefonoak dakartzan elementuak aldatzea zure lurraldean eskuragarri dauden softwarearen eta osagarrien arabera edo zerbitzu-hornitzailearen eskaintzaren arabera. Hainbat osagarri eskura ditzakezu Samsung-en tokiko hornitzailearen bidez.
- Telefonoarekin batera datozen osagarriak dira erabiltzeko egokienak.

Telefonoaren diseinua

Telefonoaren aurrealdean eta barrualdean tekla eta funtzio hauek daude:









Telefonoaren atzealdean tekla eta funtzio hauek daude:



Telefonoarekin nahi egin nahi ez dituzun eragiketarik ez egiteko, ukitzeko pantaila eta teklak blokea ditzakezu. Blokeatzeko, sakatu (🔒). Desblokeatzeko, luze sakatu (🔓) edo luze sakatu pantaila blokeatzeko ikonoa.










Teklak









Tekla	Funtzioa
 Markatzeko tekla	Dei bat egiteko edo erantzuteko aukera ematen du; modu inaktiboan, azkena markatutako, galdutako edo jasotako deien zenbakiak berreskuratzeko aukera ematen du
 Menua	Menu nagusira joateko eta aktibo dauden aplikazio guztiak bistaratzeko (luze sakatuta) balio du.
 Pizteko/ menuetatik irteteko tekla	Telefonoa pizteko eta itzaltzeko aukera ematen du (luze sakatuta) edo dei bat amaitzeko aukera ematen du; menuen moduan, modu inaktibora itzultzeko aukera ematen du
 Bolumen-tekla	Telefonoaren bolumena doitzeko balio du





Tekla	Funtzioa
 Blokeatzeko tekla	Ukipen-pantaila eta teklak blokeatzeko edo ukipen-pantaila eta teklak desblokeatzeko (luze sakatu)
 Kamera	Modu inaktiboan, kamera pizteko balio du; kameraren moduan, argazki bat edo bideo bat ateratzeko.

Ikonoak

Ikasi pantailan agertzen diren ikonoei buruz.

Ikonoa	Definizioia
	Seinalearen intentsitatea
	GPRS sarea konektatuta
	EDGE sarea konektatuta
	UMTS sarea konektatuta
	HSDPA sarea konektatuta
	Ahots-deia abian da
	Bideo-deia abian da
	Larrialdi-mezuaren funtzioa aktibatuta
	Web-ean nabigatzea

Ikonoa	Definizioia
	Web gune seguru batera konektatuta
	Desplazamenduan (ohiko zerbitzu-eremutik kanpo)
	Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta
	PC batekin sinkronizatzea
	WiFia aktibatuta
	Bluetooth entzungailuak edo autorako esku libreko Bluetooth kita konektatuta
	Bluetootha aktibatuta
	Alarma aktibatuta
	Memoria-txartela jarrita
	Testu-mezu berria (SMS)

Ikonoa	Definizioa
	Multimedia-mezu berria (MMS)
	Mezu elektronikoa berria
	Ahots-postako mezu berria
	Profil normala aktibatuta
	Isila profila aktibatuta
	Bateriaren karga-maila
	Uneko ordua



Telefono mugikorra instalatzea eta muntatzea


Hasteko, instalatu eta konfiguratu zure telefono mugikorra, eta erabili lehen aldiz.

SIM edo USIM txartela eta bateria jartzea

Telefonia mugikorreko zerbitzu batean izena ematean, SIM txartela (abonatuaren identifikazio-modulua) jasoko duzu. Hor, izen-emateari buruzko informazioa duzu; adibidez, identifikazio pertsonaleko zenbakia (PIN) edo hautazko zerbitzuak. UMTS eta HSDPA zerbitzuak erabiltzeko, USIM txartel bat eskuratu dezakezu (abonatuaren identifikazio-modulu unibertsala).


SIM edo USIM txartela eta bateria sartzeko:

1. Kendu bateriaren tapa.



Telefonoa piztuta badago, itzali (🔇) tekla luze sakatuta.


2. Sartu SIM edo USIM txartela.




- Jarri SIM edo USIM txartela telefonoan, urre koloreko kontaktuak gora begira direla.
- SIM edo USIM txartela sartu gabe, sarerik gabeko zerbitzuak eta telefonoaren menu batzuk erabil ditzakezu.
- Ez sartu memoria-txartelik SIM edo USIM txartelaren artean.
- Ez kendu SIM edo USIM txartela telefonoa piztuta dagoela. Telefonoa bera edo SIM edo USIM txartela kaltetu dezake.

3. Sartu SIM edo USIM txartela SIM edo USIM txartelaren artean, eta sakatu dagokion tokian finko egon arte.

4. Sartu bateria.



5. Jarri berriro bateriaren estalkia.



Bateria kargatzea

Telefonoa lehen aldiz erabili aurretik, bateria kargatu behar duzu.

1. Ireki gailuaren gaineko funtzio ugariko hartunearen estalkia.
2. Konektatu kargagailuaren mutur txikia funtzio ugariko hartunera.



Triangelua gora begira duela



Kargagailua behar bezala konektatzen ez baduzu, telefonoak kalte larriak jasan ditzake. Bermean ez ditu barne hartzen okerreko erabileragatik sortutako kalteak.

3. Konektatu kargagailuaren mutur handia korrante-hartune batera.
4. Bateria osorik kargatuta dagoenean (🔋 ikonoa mugitzen ez denean), deskonektatu kargagailua elikadura-iturritik.
5. Deskonektatu telefonoa kargagailutik.
6. Itxi funtzio ugariko hartunearen estalkia.



Bateria baxuaren adierazleari buruz

Bateria-maila baxua denean, telefonoan ohartarazpen-tonu bat egingo du, eta bateria baxu dagoela adierazten duen mezu bat bistaratuko da. Gainera, bateriaren ikonoa hutsik eta keinuka agertuko da. Bateria-maila telefonoak funtzionatzeko baxuegia bada, itzali egingo da automatikoki. Kargatu bateria telefonoa erabiltzen jarraitzeko.

Memoria-txartela sartzea (hautazkoa)


Multimedia-fitxategi gehiago biltegitratzeko, memoria-txartela sartu behar duzu. 16 GB-ra arteko microSD® edo microSDHC® memoria-txartelak onartzen ditu telefonoak (fabrikatzailearen eta memoria-txartel motaren arabera).



Memoria-txartela PCan formateatuz gero, baliteke telefonoarekin bateraezintasunak sortzea. Formateatu memoria-txartela telefonoan bakarrik.

1. Ireki telefonoaren alboko memoria-txartelarentzako zirrikitua.

2. Sartu memoria-txartel bat, etiketa gora begira duela.




3. Sakatu memoria-txartelari zirrikituaren barnealdera, bere lekuan gelditu arte.
4. Itxi estalkia memoria-txartelaren zirrikiturantz.

Memoria-txartela kentzeko, ireki memoria-txartelaren zirrikituaren estalkia, kontuz bultza egin telefonotik askatu arte, eta, gero, tira egin txartelari, zirrikitutik atera arte.

Eskurako zinta jartzea (hautazkoa)

1. Kendu bateriaren tapa.
2. Pasatu eskurako zinta zirrikitutik, eta lot iezaiozu irtengune txikiari.



3. Jarri berriro bateriaren estalkia.



Oinarrizko funtzioen erabilera

Ikas ezazu telefono mugikorraren funtzio nagusiak erabiltzen eta oinarrizko eragiketak egiten.

Telefonoa piztea eta itzaltzea

Telefonoa pizteko:

1. Luze sakatu (📞).
2. Idatzi zure PIN zenbakia eta sakatu **Baieztatu** (beharrezkoa bada).

Telefonoa itzaltzeko, egin 1. urratseko gauza bera.

Lineatik kanpoko profiler a aldatzea

Lineaz kanpo profiler a aldatuz gero, telefono-sarea erabiltzerik behar ez duten zerbitzuak erabil ditzakezu haririk gabeko gailuak debekatuta dauden lekuetan, esate baterako, hegazkinetan eta ospitaleetan.

Lineaz kanpo profiler a aldatzeko, hautatu **Ezarpenak** → **Telefonoaren profilak** → **Lineaz kanpo**.

Bete langile ofizialek egindako ohar eta argibide guztiak haririk gabeko gailuak debekatuta dauden eremuetan zaudenean.

Ukipen-pantaila erabiltzea

Telefonoko ukipen-pantailaren bidez, erraz hauta ditzakezu elementuak, bai eta funtzioak egin ere. Ikas itzazu ukipen-pantaila erabiltzeko oinarrizko ekintzak.




- Pantailan arrastorik ez egiteko, ez erabili tresna puntadunik.
- Ukipen-pantailak ez du ukitu behar beste gailu elektrikorik. Deskarga elektrostatikoek arazoak sor ditzakete ukipen-pantailaren funtzionamenduan.
- Ukipen-pantailak ez du ura ukitu behar. Baliteke ukipen-pantaila ondo ez ibiltzea hezetasunarekin edo uretan egon bada.




- Ukipen-pantaila ahalik eta ondoen erabiltzeko, kendu pantailaren geruza babeslea telefonoa erabili aurretik.
- Ukipen-pantailak geruza bat du giza gorputzak emititzen dituen karga elektriko txikiak detektatzen dituena. Behar bezala funtziona dezan, ukitu ukipen-pantaila hatz puntekin. Ukipen-pantailak ez du erantzungo tresna puntadun batekin ukituz gero (adibidez, arkatx optiko bat).
- Sakatu ikono bat menu bat irekitzeko edo aplikazio bat hasteko.



- Eraman behatza gora edo behera zerrenda bertikaletan mugitzeko.





- Mugitu behatza ezkerrera edo eskuinera zerrenda horizontaletan mugitzeko.



Menuetara sartzea

Telefonoaren menuetara sartzeko:


1. Modu inaktiboan, hautatu **Menua** edo sakatu **Menua** tekla menuen modura sartzeko.
2. Mugitu ezkerrera edo eskuinera, menuen moduko pantaila batera iritsi arte.
3. Hautatu menu edo aukera bat.
4. Sakatu  gora maila bat igotzeko; sakatu  modu inaktibora itzultzeko.

Menuen modua pertsonalizatzea



Baliteke funtzio hau erabilgarri ez egotea, telefonoko software-motaren arabera.

Menuen moduko pantailan, aplikazioak antola ditzakegu edo pantaila bakoitzaren izenburuak konfiguratu ditzakegu, zure lehentasunen edo beharren arabera.

1. Menuen moduan, mugitu ezkerrera edo eskuinera menuen moduko pantailaraino
2. Sakatu  edizio modura aldatzeko.

3. Pertsonalizatu pantailak nahi duzun bezala.
 - Menuen pantailari izena aldatzeko, idatzi izenburua testua idazteko eremuan, pantailaren goiko aldean.
 - Aplikazioak berrantolatzeko, hautatu eta arrastatu aplikazioaren ikonoa nahi duzun tokira.

4. Hautatu **Gorde**.



Hautatu **Berrezarri**, aplikazioentzako lehenetsitako ordena berrezartzeko.


Aplikazioak aldatzea

Telefonoak zenbait zeregin egiteko aukera ematen du, aldi berean zenbait aplikazio exekutatuta.


Aktibo dagoen aplikazio batetik bestera aldatzeko

1. Luze sakatu menuko tekla aplikazioen zerrenda bat irekitzeko.
2. Joan aplikazio batera eta hautatu. Ikusteko modua aldatzeko, hautatu **lauki-sare bista**.

Aplikazioak ixtea

Uneko aplikazioa ixteko, sakatu ()

Bigarren mailan exekututzen ari den aplikazioa ixteko:

1. Luze sakatu menuko tekla aplikazioen zerrenda bat irekitzeko.
2. Joan aplikazio batera eta hautatu ()


Widget-ak erabiltzea

Ikas ezazu widget-en tresna-barrako widget-ak erabiltzen.



- Widget batzuek web-zerbitzuetara konektatzen dira. Widget web bat hautatzean, baliteke kargu gehigarriak kobratzea.
- Eskuragarri dauden widget-ak aldatu egin daitezke zerbitzu-hornitzailearen edo zu zauden eremuaren arabera.

Widget-en tresna-barra irekitzea

Modu inaktiboan, hautatu  pantailaren goiko aldean ezkerrean, widget-en tresna-barra irekitzeko. Widget-en tresna-barrako widget-ak berriro antolatu edo pantaila inaktibora mugitu ditzakezu.


Widget-ak pantaila inaktiboari mugitzea

1. Modu inaktiboan, mugitu ezkerrean edo eskuinera, pantaila inaktibo batera iritsi arte.
2. Ireki widget-en tresna-barra.
3. Arrastatu widget-en tresna-barrako widget bat pantaila inaktibora. Pantailan nahi duzun lekuan jarri dezakezu widget-a.





Pantaila inaktibotik widget-en tresna-barrara widget-ak mugitzeko, hautatu eta arrastatu widget-a dagokion tresna-barrara.

Widget-ak aldatzea

1. Ireki widget-en tresna-barra.
2. Hautatu  widget-en tresna-barran.
3. Hautatu widget-en tresna-barrari gehitu nahi dizkiozun widget-ak, eta hautatu **Gorde**.

Laguntza-informazioa sartzea

Ikas ezazu telefonoari buruzko informazio erabilgarrira sartzen.

1. Ireki widget-en tresna-barra.
2. Arrastatu  pantaila inaktibora eta hauta ezazu.
3. Biratu telefonoa ezkerrean ikuspegi horizontala eskuratzeko.
4. Hautatu laguntza-gai bat, aplikazio edo funtzio bati buruzko informazioa eskuratzeko.
5. Joan ezkerrean edo eskuinera informazio gehiago eskuratzeko. Aurreko mailara itzultzeko, hautatu .

Telefonoa pertsonalizatzea

Pertsonalizatu telefonoa zure lehenespenen arabera, ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

Teklen tonuen bolumena doitzea

Modu inaktiboan, sakatu bolumenaren tekla gora edo behera teklen tonuaren bolumena doitzeko.

Ukipen-pantailaren bibrazioaren intentsitatea doitzea

Telefonoaren pantaila ukitzen duzuneko bibrazioaren intentsitatea doitu dezakezu.

1. Modu inaktiboan, sakatu bolumen-tekla gorantz edo beherantz.
2. Hautatu **Dardara feed-backa**, eta doitu bibrazioaren intentsitatea.

Isilik modura edo hortik beste batera aldatzea

Modu inaktiboan, hautatu **Teklatua** eta luze sakatu **#** telefonoaren soinua aktibatzeko edo desaktibatzeko.

Dei-tonua aldatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Telefonoaren profilak**.
2. Hautatu  eta erabiltzen ari zaren profila.



Isila edo **Lineaz kanpo** profila erabiltzen ari bazara, ezingo duzu dei-tonua aldatu.

3. Hautatu **Ahots deiaren dei doinua** edo **Bideo-deiaren dei doinua**.
 4. Hautatu zerrendako melodia bat, eta sakatu **Gorde**.
 5. Hautatu **Gorde**.
- Beste profil batera aldatzeko, hautatu bat zerrendatik.

Etiketen modua aktibatzea

Etiketen modua aktibatuta dagoenean, telefonoa behera begira badago, soinu guztiak aldi baterako isilaraz ditzakezu.

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Telefonoaren konfigurazioa** → **Ettiguette etenaldia** > **Aktibatuta**.
2. Hautatu **Gorde**.

Pantailaren atzealdea hautatzea (modu inaktiboa)

1. Mugitu ezkerrera edo eskuinera, pantaila inaktibo batera iritsi arte.
2. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantaila eta argiztapena** → **Pantaila atzealdea**.
3. Mugitu eskuinera edo ezkerrera, irudi batera iritsi arte.
4. Hautatu **Ezarri**.

Hautatu atzealdeko kolore bat (menuen modua)

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantaila eta argiztapena** → **Nire gaia**.
2. Aukeratu koloreen konbinazioa.
3. Hautatu **Gorde**.
4. Hautatu Baieztatu atzeko pantailarako hautatutako kolore-patroia aplikatzeko.

Ukipen-pantaila automatikoki blokeatzeko funtzioa konfiguratzea

Pantaila itzaltzen denean ukipen-pantaila eta teklak automatikoki blokeatzeko moduan konfigura dezakezu telefonoa. Pantaila berriro pizteko modua ere konfigura dezakezu.

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Ukipen panela**.
2. Hautatu **Aktibatuta**, **Blokeatze automatikoa** aukeran.

3. Hautatu **Atzealdeko argia piztuta** goitibeherako menua, eta hautatu pantaila zer botoirekin piztu nahi duzun.
4. Hautatu **Gorde**.

Telefona blokeatzea


1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Segurtasuna**.
2. Hautatu **Aktibatuta, Telefono blokeoan** aukeran.
3. Idatzi pasahitz berria (4 eta 8 digitu artean), eta hautatu **Baieztatu**.
4. Sartu berriro pasahitz berria eta hautatu **Baieztatu**.



- Pasahitza behar den menu batean lehen aldiz sartzean, pasahitz bat sortzeko eta berresteko eskatuko zaizu.
- Legez kanpoko softwareak erabiltzearen ondorioz pasahitzak edo informazio pribatua galduz gero edo beste kalte bat jasanez gero, Samsung ez da kalte horien arduradun egingo.

Ukipen-pantaila blokeo adimendunaren bidez desblokeatzea

Ukipen-pantaila blokeatuta dagoela karaktere jakin bat idatziz gero, pantaila bakarrik desblokea daiteke, pantaila desblokeatu eta markaketa bizkorreko zenbaki batera deitu daiteke edo aplikazio bat desblokeatu edo abiarazi daiteke. Desblokeatze adimenduneko karaktere bat konfiguratzeko:

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Desblokeatze adimenduna**.
2. Hautatu **Aktibatuta, Keinu bidez desblokeatu** aukeran.
3. Hautatu desblokeatzeko aukera bat.
4. Hautatu markaketa bizkorreko zenbaki bat, markatzeko, edo hautatu aplikazio bat abiarazteko (beharrezkoa bada).
5. Hautatu karaktere bat desblokeo adimendunaren funtziorako.
6. Hautatu  (beharrezkoa bada).
7. Hautatu **Gorde**.

Deien oinarrizko funtzioak erabiltzea

Ikas ezazu deiak egiten edo erantzuten, eta deien oinarrizko funtzioak erabiltzen.



Dei bat egiten ari zarenean, telefonoak automatikoki blokeatzen du ukipen-pantaila, nahi gabe testurik ez sartzeko. Desblokeatzeko, berriz, luze sakatu (🔒).

Deitzea

1. Modu inaktiboan, hautatu **Teklatua** eta idatzi area-kodea eta telefono-zenbakia.
2. Sakatu (↶) zenbakia markatzeko.
Bideo-dei bat egiteko, hautatu ☰ → Bideo-deia.
3. Deia amaitzeko, sakatu (📞).

Dei bati erantzutea

1. Dei bat jasotzen duzunean, sakatu (↶).
2. Bideo-dei bat egiteko, sakatu (↶) eta hautatu **Erakutsi** deitzen ari den pertsonak kameraren aurreko aldeko lentearen bidez ikus zaitzan.
3. Deia amaitzeko, sakatu (📞).

Bolumena doitzeko

Hitz egiten ari zarela bolumena doitzeko, sakatu bolumen-teklak gora edo behera.

Bozgorailuaren funtzioa erabiltzea

1. Dei batean, sakatu **Bozgailua** bozgorailua aktibatzeko.
2. Entzungailua berriz erabiltzeko, hautatu **Bozgailua**.



Zarata handia dagoen lekuetan, baliteke deiak ez entzutea bozgorailuaren funtzioarekin hitz egitean. Erabili telefonoaren modu arrunta audioak hobeto funtziona dezan.

Entzungailuak erabiltzea

Entzungailuak hartunera konektatuz gero, deiak egin eta erantzun ditzakezu:

- Azken zenbakia berriro markatzeko, sakatu entzungailuen botoia bi aldiz.
- Dei bat erantzuteko, sakatu entzungailuen botoia.
- Dei bat amaitzeko, sakatu entzungailuen botoia.

Mezuak jasotzea eta bistaratzea

Ikas ezazu testu-mezuak (SMS), multimedia-mezuak (MMS) edo mezu elektronikoa bidaltzen.

Testu-mezua edo multimedia-mezua bidaltzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak**→**Mezua sortu**→**Mezua**.
2. Hautatu **Ukitu hartzailea gehitzeko...** eta idatzi hartzailearen zenbakia.

3. Hautatu **Ukitu testua gehitzeko** eta idatzi mezua.▶ 32. or. Testu-mezu gisa bidaltzeko, aurreratu 5. pausoraino. Multimedia edukia eransteko, jarraitu 4. pausoarekin.
4. Hautatu **Media gehitu** eta erantsi elementu bat.
5. Hautatu **Bidali** mezua bidaltzeko.

Mezu elektronikoa bat bidaltzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak**→**Mezua sortu**→**Posta elektronikoa sortu**.
2. Hautatu **Ukitu hartzailea gehitzeko...** eta idatzi hartzailearen helbide elektronikoa.
3. Hautatu **Ukitu gaia gehitzeko** eta idatzi gaia.
4. Hautatu **Ukitu testua gehitzeko** eta idatzi mezu elektronikoa.
5. Hautatu **Fitxategiak gehitu** eta erantsi fitxategi bat (beharrezkoa bada).
6. Hautatu **Bidali** mezua bidaltzeko.



Testua idaztea

Testu bat idaztean, idazteko modua alda dezakezu:

- Testua T9 moduan sartzeko, hautatu **T9**. **T9**-ren ondoan puntu berde bat bistaratzen da.
- Letra larrira edo xehera aldatzeko edo zenbakizko ikurren modura aldatzeko, hautatu **Abc** edo **T9Ab**. Testua idazteko aukeran dauden moduak aldatu egin daitezke herrialdearen arabera.
- Sakatu ☆ ikurren modura aldatzeko.

Idatzi testua modu hauetako batean:

Modua	Funtzioa
ABC	Hautatu dagokion tekla birtuala nahi duzun karakterea pantailan agertu arte.

Modua	Funtzioa
T9	<ol style="list-style-type: none"> 1. Sakatu hitz oso bat idazteko tekla birtualak. 2. Nahi duzun hitza pantailan ondo idatzita bistaratzen denean, sakatu  tartea sartzeko. Hitz egokia agertzen ez bada, hautatu  edo mugitu zerrendan ezkerredera edo eskuinera zerrendatik beste hitz bat hautatzeko.
Zenbakiak	Hautatu dagokion tekla alfanumerikoa zenbaki berri bat sartzeko.
Ikurrak	Hautatu dagokion tekla alfanumerikoa ikur berri bat sartzeko.

Ikusi testu- edo multimedia-mezuak

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Sarrera postontzia**.
2. Hautatu testu-mezu edo multimedia-mezu bat.


Mezu elektronikoa bat ikustea

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak**→**Posta elektronikoa**.
2. Hautatu kontu bat.
3. Hautatu **Deskargatu**.
4. Hautatu mezu elektronikoa bat edo goiburuko bat.
5. Goiburuko bat hautatu baduzu, sakatu **Berreskuratu** mezua ikusteko.


Kontaktuak gehitzea eta bilatzea

Ikas itzazu **Kontaktuak** funtzioaren oinarriko funtzioak.

Kontaktu berri bat gehitzea



1. Modu inaktiboan, sakatu **Teklatua**, eta idatzi telefono-zenbakia.
2. Hautatu  → **Kontaktueta gehitu**→**Berria**.
3. Hautatu **Teléfono** edo **SIM** (beharrezkoa bada).
4. Idatzi kontaktuaren informazioa.
5. Hautatu **Gorde** memorian kontaktu bat gehitzeko.

Kontaktuak bilatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Kontaktuak**.
2. Hautatu **Ukitu bilatzeko**, idatzi bilatu nahi duzun izenaren lehen letra, eta hautatu **Amaituta**.
Bestela,  arrastatu dezakezu, izenaren lehen letra hautatzeko.
3. Hautatu bilaketa-zerrendan nahi duzun kontaktuaren izena.







Kontaktua aurkitu ondoren, aukera hauek dituzu:

- hautatu  →  kontaktuari deitzeko
- hautatu **Editatu** kontaktuaren informazioa editatzeko.

Kameraren oinarriko funtzioak erabiltzea

Ikas itzazu argazkiak eta bideoak egiteko eta ikasteko oinarriko funtzioak.

Argazkiak ateratzea


1. Modu inaktiboan zaudela, sakatu () kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrean ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Fokatu atera nahi duzuna kamerarekin, eta egin beharrezko doikuntzak.
 - Aurretik zenbat denbora itxaron behar duen zehazteko, hautatu 
 - Esposizio-balioa konfiguratzeko, hautatu 
 - Irudia hurbiltzeko edo urruntzeko, sakatu bolumen tekla.
4. Argazkia automatikoki gordetzen da. Argazkia atera ondoren, hautatu () argazkiak ikusteko.

Sakatu , argazki bat ateratzeko.


Argazkiak bistaratzea








Menuen moduan, hautatu **Nire fitxategiak** → **Irudiak** argazkiak dituen karpeta bat → argazki-fitxategi bat.

Argazkiak ikusten ari zarela,

- Biratu telefonoa ezkerrean ikuspegi horizontala eskuratzeko. Biratu telefonoa ezkerrean edo eskuinera. Argazkiak ezkerrean edo eskuinera mugituko dira, automatikoki.
- Luze sakatu pantaila.  bistaratzen denean, mugitu gora edo behera, gerturatzeko edo urruntzeko. Sakatu bi aldiz pantaila zoom-aren pantailatik ateratzeko.
- Hautatu **Gehiago** → **Diapositiba aurkezpena...** argazkiak diapositiba-aurkezpen gisa ikus ditzazun.

Bideoak grabatzea

1. Modu inaktiboan zaudela, sakatu () kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrean ikuspegi horizontala eskuratzeko.

3. Sakatu  grabazio-modura aldatzeko.
4. Fokatu atera nahi duzuna kamerarekin, eta egin beharrezko doikuntzak.
 - Grabazio modura aldatzeko, sakatu .
 - Aurretik zenbat denbora itxaron behar duen zehazteko, hautatu .
 - Esposizio-balioa konfiguratzeko, hautatu .
 - Irudia hurbiltzeko edo urruntzeko, sakatu bolumen tekla.
5. Sakatu kameraren tekla grabazioa hasteko.
6. Hautatu  edo sakatu () grabazioa geldiarazteko. Bideoa automatikoki gordetzen da. Bideoak atera ondoren, hautatu  bideoak ikusteko.

Bideoak ikustea

Menuen moduan, hautatu **Nire fitxategiak** → **Bideoak** → bideoak dituen karpeta bat → bideo-fitxategi bat. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.

Musika erreproduzitzea

Ikas ezazu musika-erreproduzitzailearekin edo FM irratiarekin musika entzuten.

FM irratia entzutea



Irratia entzuten duzunean, ez konektatu bidaiarako egokigailua edo PCrako datu-kablea telefonora. Egokigailuak edo kableak eten egin dezakete entzungailuen antena-funtzioa.

1. Konektatu emandako entzungailuak telefonoaren entzungailuen hartunera.
2. Menuen moduan, hautatu **FM irratia**.
3. Hautatu **Bai** sintonizazio automatikoa hasteko. Irratiak automatikoki bilatzen eta gordetzen ditu eskuragarri dauden irrati-kateak.



FM irratia lehen aldiz pizten duzunean, sintonizazio automatikoa hasteko eskatuko dizu.

4. Erabili ikono hauek FM irratia kontrolatzeko:

Ikono	Funtzioa
	Irrati-kate bat sintonizatzeko eta gordetako irrati-kate bat hautatzeko aukera ematen du (luze sakatuta)
	FM irratia pizteko balio du.
	FM irratia itzaltzeko balio du.
	Gogokoen zerrendan gordetako irrati-kate bat hautatzeko balio du ▶ 53. or.
	Soinuaren irteera aldatzeko balio du

Entzuten ari zaren abestiari buruzko informazioa eskuratu nahi baduzu, sakatu **Gehiago** → **Musika bilatu**. ▶ 54. or.

5. FM irratia itzaltzeko, hautatu .

Musika-fitxategiak entzutea

Hasteko, transferitu fitxategiak telefonora edo memoria-txartelera:

- Deskargatu fitxategiak haririk gabeko saretik. ▶ Web-ean nabigatzea
- Deskargatu fitxategiak PC batetik, Samsung Kies aukerako programa erabilita. ▶ 50 or.
- Jaso fitxategiak Bluetooth bidez. ▶ 56. or.
- Kopiatu fitxategiak zure memoria-txartelean. ▶ 51 or.
- Sinkronizatu Windows Media 11 erreproduzitzailearekin ▶ 51. or.

Fitxategiak telefonora edo memoria-txartelera transferitu ondoren:

1. Menuen moduan, hautatu **Musika erreproduzitzailea**.
2. Hautatu musika-kategoria bat → musika-fitxategi bat.

3. Erabili ikono hauek erreprodukzioa kontrolatzeko:

Ikonoa	Funtzioa
	Erreprodukzioa eteteko
	Erreprodukzioa abiatzen edo berrabiarazten du.
	Aurreko fitxategira joateko edo fitxategian bertan atzera egiteko (luze sakatuta)
	Hurrengo fitxategira joaten da edo fitxategi berean aurrera egiteko (luze sakatuta)
	Soinu-efektua aldatzeko
	Ausazko modua aktibatzeko aukera ematen du.
	Errepikatzeko ateratzeko modua aldatzeko aukera ematen du.

1. Pantaila ukitzen duzunean izango dituzu ikonoak erabilgarri.

Web-ean nabigatzea

Ikas ezazu webguneetara sartzen eta gogokoei gehitzen.



- Baliteke kargu gehigarriak ordaindu behar izatea Interneten sartu edo multimedia-edukia deskargatuz gero.
- Nabigatzailearen menuak izen bat edo beste bat izan dezake, zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Eskuragarri dauden ikonoak aldatu egin daitezke zerbitzu-hornitzailearen edo zu zauden eremuaren arabera.

Webguneetan nabigatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Internet**→**Hasiera orria**, zure zerbitzu-hornitzailearen orri nagusia irekitzeko.

2. Erabili ikono hauek web-orrietan nabigatzeko:

Ikonoa	Funtzioa
	Web-orrietan aurrera edo atzera egiteko balio du
	Web-orria kargatzeko prozesua geldiarazteko
	Uneko web orria eguneratzeko balio du.
	Ikuspegiaren modua aldatzeko balio du.
	Uneko wap orria gogokoen zerrendari gehitzeko balio du.
	Gordetako gogokoen zerrenda irekitzeko aukera ematen du
	Nabigatzailearen aukera-zerrenda batera joateko aukera ematen du

Gogokoetan webguneak eranstea

1. Menuen moduan, hautatu **Internet**→**Laster-markak**.
2. Hautatu **Gehitu**.

3. Idatzi orri baten izenburua eta web helbidea (URL).
4. Hautatu **Gorde**.

Multimedia-fitxategiak deskargatzea



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1. Menuen moduan, hautatu **Deskargak**.
2. Bilatu doinu edo irudi bat eta deskargatu telefonoan.

Google-ren zerbitzuak erabiltzea

Ikasi Google-ren zerbitzuak erabiltzen.



- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Funtzio hau erabiltzeko hautatu beharreko pausuak aldatu egin daitezke herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Bilatzaileetara konektatzea

1. Menuen moduan, sakatu **Google** → **Bilatu**.
2. Sartu gako-hitz bat bilaketa-eremuan.

Posta elektronikora konektatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Google** → **Posta**.
2. Konfiguratu Google-ren zure kontua, eta abiarazi saioa.
3. Bidali edo jaso mezu elektronikoak.

Mapetara konektatzea

Mapa bat bilatzeko:

1. Menuen moduan, sakatu **Google** → **Mapak**.
2. Mugitu mapan.
3. Hurbildu edo urrundu nahi duzun kokapena.

Kokapen jakin bat bilatzeko:

1. Menuen moduan, sakatu **Google** → **Mapak**.
2. Hautatu **Menua** → **Search Map** eta idatzi enpresaren helbidea edo maila.

Helmuga jakin batera nola iritsi jarraibideak eskuratzeko:

1. Menuen moduan, sakatu **Google** → **Mapak**.
2. Hautatu Menua → Get Directions.
3. Idatzi hasierako kokapenaren eta amaierako kokapenaren helbidea.
4. Hautatu **Show directions** mapan ikusteko. Mapen funtzionaltasuna hobetzeko, deskargatu GPS datu-fitxategiak. ▶ 68 or.

Facebook-era konektatzea



- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
 - Funtzio hau erabiltzeko hautatu beharreko pausuak aldatu egin daitezke herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
1. Menuen moduan, hautatu **Facebook**.
 2. Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza, eta, ondoren, hautatu **Saioa hasi**.

3. Erabili funtzio hauek:

Funtzioa	Deskribapena
Inicio	Argazkiak eta ideiak beste batzuekin partekatzeko aukerak ditu.
Perfil	Zure informazio pertsonala irakurtzeko edo eguneratzeko.
Amigos	Lagunak bilatzeko edo lagunaren argitalpenak irakurtzeko.
Buzón de entrada	Mezuak irakurtzeko edo jakinarazpen edo eskaera berriak bilatzeko.

MySpace-ra konektatzea



- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Funtzio hau erabiltzeko hautatu beharreko pausuak aldatu egin daitezke herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1. Menuen moduan, hautatu **MySpace**.
2. Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza, eta, ondoren, hautatu **Saioa hasi**.
3. Erabili funtzio hauek:

Funtzioa	Deskribapena
Inicio	Argazkiak eta ideiak beste batzuekin partekatzeko aukerak ditu.
Mi correo	Mezuak bidaltzeko eta irakurtzeko, eta lagunak izateko eskaerak bilatzeko.
Fotos	Argazkiak ikusi eta kargatzeko.
Amigos	Lagunak bilatzeko, lagunaren zerrenda ikusteko edo lagunak izateko eskaerak bidaltzeko.

Funtzio aurreratuak erabiltzea

Ikas ezazu telefono mugikorraren funtzio osagarriak erabiltzen eta eragiketa aurreratuak egiten.

Deien funtzio aurreratuak erabiltzea

Ikas itzazu zure telefonoaren deitzeko gaitasun gehigarriak.




Galdutako deiak bistaratzea eta markatzea

Telefonoko pantailan agertzen dira galdutako deiak.

Dei galdu bat duzunean, hautatu deia ekitaldien oharren widget-etik, eta hautatu **Ahots deia**.

Dei galdu bat edo gehiago dituzunean, hautatu deia ekitaldien oharren widget-etik, eta hautatu **Erregistroak**→ **Galdutakoak**.

Orain dela gutxi markatutako zenbaki batera deitzea




1. Modu inaktiboan, sakatu [] azken zenbakien zerrenda bistaratzeko.
2. Joan markatu nahi duzun zenbakiraino eta sakatu  edo [] markatzeko.

Dei bat zain uztea edo berreskuratzea

Hautatu **Egonean** dei bat zain uzteko edo hautatu **Berreskuratu** berreskuratzeke.


Bigarren deia egitea

Zure sareak funtzio hori onartzen badu, dei baten barruan beste zenbaki bat marka dezakezu:


1. Sakatu **Egonean** lehen deia zain jartzeko.
2. Idatzi markatu nahi duzun bigarren zenbakia eta hautatu **Dei berria** edo sakatu [].
3. Sakatu **Aldatu**, dei batetik bestera igarotzeko.
4. Zain dagoen dei bat amaitzeko, sakatu **Egonean** → .
5. Uneko deia amaitzeko, sakatu ().

Bigarren deiari erantzutea


Zure sareak funtzio hori onartzen badu, sarrerako bigarren dei bat erantzun dezakezu:

1. Sakatu [] bigarren deiari erantzuteko. Lehen deia zain geratuko da automatikoki.
2. Sakatu **Aldatu**, dei batetik bestera igarotzeko.

Dei anizkoitza egitea (multikonferentzia-deia)




1. Deitu dei anizkoitzera gehitu nahi duzun lehen parte-hartzaileari.
2. Lehen parte-hartzailearekin konektatuta zaudela, deitu bigarren parte-hartzaileari.
Lehen parte-hartzailea zain jartzen da automatikoki.
3. Bigarren parte-hartzailearekin konektatuta zaudela, sakatu **Lotu**.
4. Eman berriro 2. eta 3. pausoak, solaskide gehiago eransteke (beharrezkoa bada).
5. Dei anizkoitza amaitzeko, sakatu ().

Nazioarteko zenbaki batera deitzea


1. Modu inaktiboan, hautatu **Teklatua** eta luze sakatu **0 +** karakterea sartzeko.
2. Idatzi markatu nahi duzun zenbaki osoa (herrialdearen kodea, eskualdeko kodea eta telefono-zenbakia), eta, gero, sakatu [] markatzeko.

Aurkibideko kontaktu bati deitzea

Agenda erabilia, zenbakiak zuzenean marka ditzakezu (gordetako kontaktuenak). ▶ 33. or.

1. Menuen moduan, hautatu **Kontaktuak**.
2. Hautatu nahi duzun kontaktoa.
3. Hautatu  eta markatu nahi duzun zenbakia →  (ahots-deia) edo  (bideo-deia).

Dei bat ez onartzea

Jasotako deia ez onartzeko, sakatu (). Deia egiten ari den pertsona okupatuta dagoela adierazten duen tonua entzungo du.

Automatikoki zenbat zenbakiren deiak ez onartzeko, erabili deiak automatikoki ez onartzeko funtzioa. Deiak automatikoki ez onartzeko funtzio aktibatzeo eta ez onartzeko zenbakien zerrenda konfiguratzeko:

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Aplikazioen konfigurazioa** → **Deitu** → **Dei guztiak** → **Automatikoki ukatu**.
2. Hautatu **Aktibatuta, Aktibazioa** aukeran.
3. Hautatu **Zenbakia gehitu**.
4. Hautatu zenbakiak sartzeko eremua.
5. Idatzi deiak ez onartzeko zenbakia, eta hautatu **Amaituta**.
6. Hautatu **Gorde**.
7. Errepikatu 3-6 urratsak zenbaki gehiago sartzeko.
8. Sakatu zenbakien ondoko kontrol-laukitxoak.
9. Hautatu **Gorde**.

Kontaktuen funtzio aurreratuak erabiltzea

Ikas ezazu kontaktu-txartelak sortzen, gogoko zenbakiak konfiguratzeko eta kontaktu-taldeak sortzen.

Kontaktu-txartela sortzea

1. Menuen moduan, sakatu **Kontaktuak** → **Gehiago** → **Nire izen txartela**.
2. Idatzi zure informazio pertsonala.
3. Hautatu **Gorde**.



Zure kontaktu-txartela bidaltzeko, erantsi mezu bati edo mezu elektronikoki bati, edo bidali Bluetooth haririk gabeko funtzioaren edo ActiveSync-en bidez.

Gogoko zenbakiak konfiguratzeko

1. Menuen moduan, hautatu **Kontaktuak**.
2. Hautatu **Kontaktuak** goitibeherako zerrenda, eta sakatu **Gogokoenak**.
3. Hautatu **Gehitu**.

4. Hautatu kontaktua.

Gogoko zenbakiaren zerrendan gordeko da kontaktua.



- Kontaktua horri deitu diezaiokizu, markaketa-pantailan esleitutako zenbakia luze sakatuta.
- Gogoko zenbakiak lagunen zerrendan sartuko dira (👤) widget-en tresna-barran. Deiak egin ditzakezu edo mezuak bidali, lagunen zerrendako kontaktu bat hautatzen duzunean.

Kontaktu-talde bat sortzea

Kontaktu-taldeak sortzean, taldeen izenak, doinuak eta deia identifikatzeko argazkiak eta bibrazio-motak esleitzen diezazkiekezu taldeei, edo mezuak eta mezu elektronikoki bidali talde oso bati. Hasteko, sortu talde bat:

1. Menuen moduan, hautatu **Kontaktuak**.
2. Hautatu **Kontaktuak** goitibeherako zerrenda, eta sakatu **Taldeak**.
3. Hautatu **Taldeak sortu**.

4. Konfiguratu talde-izen bat, identifikazio-argazkia eta bibrazio-mota bat.
5. Hautatu **Gorde**.
6. Sakatu **Bai**, eta gehitu kontaktuak taldeari (beharrezkoa bada).

Mezularitzako funtzio aurreratuak erabiltzea

Ikas ezazu txantiloiak sortzen eta txantiloiak erabiltzen, mezu berriak sortzen, mezuen karpetan sortzen eta berehalako mezularitza erabiltzen.

Testu-txantiloia bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak**→**Txantiloiak**→**Testu txantiloiak**.
2. Sakatu **Sortu** txantiloia-leiho berri bat irekitzeko.
3. Hautatu testua sartzeko eremua, eta idatzi mezua.
4. Hautatu **Gorde**.


Multimedia-txantiloia bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak**→**Txantiloiak**→**Multimedia txantiloiak**.
2. Sakatu **Sortu** txantiloia-leiho berri bat irekitzeko.
3. Sortu multimedia-mezu bat, gaia jarrita eta nahi dituzun fitxategiak erantsita, txantiloia gisa erabiltzeko.▶ 31 or.
4. Hautatu **Gorde**.

Testu-txantiloia txertatzea mezu berrietan

1. Mezu berri bat idazten hasteko, menuen moduan, hautatu **Mezuak**→**Mezua sortu**→mezu-mota bat.
2. Hautatu **Gehiago**→**Idatzi**→**Testu txantiloia**→txantiloia bat.

Mezu bat sortzea multimedia txantiloiei batekin

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Txantiloiak** → **Multimedia txantiloiak**.
2. Hautatu  eta nahi duzun txantiloia. Multimedia-mezu berri gisa irekiko da txantiloia.

Mezuak administratzeko karpeta bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Nire karpetak**.
2. Hautatu **Karpeta sortu**.
3. Idatzi beste karpeta-izen bat, eta hautatu **Gorde**.
Eraman mezuak mezuen karpetatik zure karpetetara, zeuk nahi duzun bezala administratzeko.

Parlingo mezu-zerbitzua erabiltzea



- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Mezuen hizkuntza aldatzeko, joan mezularitza-aplikaziora eta hautatu **Menu** → **Settings** → **Language**.

1. Menuen moduan, hautatu **Berehalako mezularitza**.
2. Hautatu **Ok** testua idazteko pantailan.




Mezularitza-programan sartzen zaren lehen aldian, berresteko eskatuko dizu.

3. Hautatu **Menu** → **Sign in**.
4. Sartu zure erabiltzailearen IDa eta, ondoren, hautatu **Sign In**.
5. Hitz egin zuzenean zure senide eta lagunekin.

Kameraren funtzio aurreratuak erabiltzea


Ikas ezazu argazkiak hainbat modutara ateratzen eta kameraren konfigurazioa pertsonalizatzen.

Argazkiak ateratzea aurrez definitutako hainbat aukerarekin


1. Modu inaktiboan zaudela, sakatu (📷) kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Hautatu **SCN** → egoera bat → .
4. Egin beharrezko doikuntzak.
5. Sakatu (📷), argazki bat ateratzeko.

“Smile shot” moduan argazkiak ateratzea


1. Modu inaktiboan zaudela, sakatu (📷) kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.

3. Hautatu →  **Irribarre kliskatzea.**
4. Egin beharrezko doikuntzak.
5. Sakatu (📷).
6. Fokatu nahi duzuna kameraren lentearekin.
Telefonoak pertsonak ezagutzen ditu irudian, eta irribarreak detektatzen ditu. Pertsonak irribarre egiten duenean, telefonoak argazki bat ateratzen du automatikoki.


Argazki-segida bat ateratzea

1. Modu inaktiboan zaudela, sakatu (📷) kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Hautatu  → **Jarraian.**
4. Egin beharrezko doikuntzak.
5. Luze sakatu (📷), argazki-segida bat ateratzeko.

Argazki panoramikoak ateratzea


1. Modu inaktiboan zaudela, sakatu (📷) kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Hautatu  → **Panorama**.
4. Egin beharrezko doikuntzak.
5. Sakatu (📷), lehen argazkia ateratzeko.
6. Mugitu pixkanaka telefonoa, zuk nahi duzun alderantz. Koadro txiki zuria eta 📷 elkarren parean jartzean, telefonoak automatikoki ateratzen du hurrengo argazkia.
7. Errepikatu 6. pausoa argazki panoramikoak osatzeko.

Argazki banatuak ateratzea


1. Modu inaktiboan zaudela, sakatu (📷) kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Hautatu  → **Mosaikoa**.

4. Hautatu irudiaren diseinua eta sakatu (📷).
5. Egin beharrezko doikuntzak.
6. Sakatu (📷), segmentu bakoitzerako argazki bat ateratzeko.


Argazkiak ateratzea marko apaingarriekin

1. Modu inaktiboan, luze sakatu (📷) kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Hautatu  → **Markoa**.
4. Hautatu markoa eta sakatu (📷) tekla.
5. Egin beharrezko doikuntzak.
6. Sakatu (📷), argazki bat markoarekin ateratzeko.

Kameraren aukerak erabiltzea



Argazki bat atera aurretik, hautatu  aukera hauetara sartzeko:

Aukerak	Funtzioa
Bereizmena	Bereizmena aldatzeko balio du
Koloreen balantzea	Koloreen balantzea doitzeko balio du
Efektuak	Efektu bereziak emateko balio du
Esposizioaren neurketa	Esposizioaren neurgailu-mota aukeratzeko balio du.
Irudi kalitatea	Argazkien kalitatea doitzeko balio du.

Bideo bat grabatu aurretik, hautatu  aukera hauetara sartzeko:



Aukerak	Funtzioa
Bereizmena	Bereizmena aldatzeko balio du
Koloreen balantzea	Koloreen balantzea doitzeko balio du
Efektuak	Efektu bereziak emateko balio du
Bideo kalitatea	Bideoklipen kalitatea doitzeko balio du

Kameraren konfigurazioa pertsonalizatzea

Argazki bat atera aurretik, hautatu  →  konfigurazio hauetara sartzeko:

Doikuntza	Funtzioa
Gida marrak	Aurrez bistartzeko pantaila aldatzen du.
Berrikusi	Argazkiak atera ondoren kamera aurrebistako pantailara igaro dadin konfiguratzeko balio du.

Doikuntza	Funtzioa
Obturadorearen soinua	Obturadorea sakatzean zer soinu egingo duen hautatzeko balio du.
Biltegitratzea	Argazki berriak gordetzeko memoria-kokapena hautatzeko balio du.
Konfigurazioa berrezarri	Kameraren konfigurazioa berrezartzeko

Bideo bat grabatu aurretik, hautatu  →  konfigurazio hauetara sartzeko:


Doikuntza	Funtzioa
Gida marrak	Aurrez bistartzeko pantaila aldatzen du.
Audio grabaketa	Audioa aktibatze edo desaktibatze balio du.

Doikuntza	Funtzioa
Biltegitratzea	Bideoklip berriak gordetzeko memoria-kokapena hautatzeko balio du.
Konfigurazioa berrezarri	Kameraren konfigurazioa berrezartzeko

Musikaren funtzio aurreratuak erabiltzea


Ikas ezazu musika-fitxategiak prestatzen, erreprodukzio-zerrendak sortzen eta irrati-kateak gordetzen.

Samsung Kies bidez musika-fitxategiak kopiatzeko


1. Menuen moduan, sakatu **Ezarpenak** → **Telefonoaren konfigurazioa** → **Ordenagailu konexioak** → **Samsung Kies** edo **Biltegitratze masiboa** → **Gorde**.
2. Sakatu () modu inaktibora itzultzeko.

3. PCrako hautazko datu-kable batekin, konektatu telefonoaren funtzio anitzeko hartunea PC batera.
4. Exekutatu Samsung Kies, eta kopiatu telefonoan PCko fitxategiak.
Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Samsung Kies-en laguntza.

Musika-fitxategiak memoria-txartel batean kopiatzea

1. Sartu memoria-txartel bat.
2. Menuen moduan, sakatu **Ezarpenak** → **Telefonoaren konfigurazioa** → **Ordenagailu konexioak** → **Biltegitratze masiboa** → **Gorde**.
3. Sakatu () modu inaktibora itzultzeko.
4. PCrako hautazko datu-kable batekin, konektatu telefonoaren funtzio anitzeko hartunea PC batera. Konektatzean, leiho bat bistaratuko da ordenagailuan.
5. Ireki karpeta fitxategiak ikusteko.
6. Kopiatu ordenagailuko fitxategiak memoria-txartelean.

Telefonoa Windows Media-ren erreproduzizailearekin sinkronizatzea

1. Sartu memoria-txartel bat (beharrezkoa bada).
2. Menuen moduan, sakatu **Ezarpenak** → **Telefonoaren konfigurazioa** → **Ordenagailu konexioak** → **Biltegitratze masiboa** → **Gorde**.
3. Sakatu () modu inaktibora itzultzeko.
4. PCrako hautazko datu-kable batekin, konektatu telefonoaren funtzio anitzeko hartunea Windows Media erreproduzizailea duen PC batera.
Konektatzean, leiho bat bistaratuko da ordenagailuan.
5. Ireki Windows Media Player, musika-fitxategiak sinkronizatzeko.
6. Editatu edo idatzi zure telefonoaren izena bistaratuko den leihoan (beharrezkoa bada).
7. Hautatu nahi dituzun musika-fitxategiak eta arrastatu sinkronizazio-zerrendara.
9. Hasi sinkronizatzen.

Erreprodukzio-zerrenda bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Musika erreproduzitzailea** → **Erreprodukzio zerrendak**.
2. Hautatu **Sortu**.
3. Sakatu testua idazteko eremua.
4. Idatzi erreprodukzio-zerrendarentzat izenburu bat, eta sakatu **Gorde**.
5. Erreprodukzio-zerrendari irudi bat esleitzeko, hautatu **Klikatu edit.**, eta hautatu irudi bat edo atera beste argazki bat.
6. Hautatu **Gorde**.
7. Hautatu erreprodukzio-zerrenda berri bat.
8. Hautatu **Gehitu** → **Pistak**.
9. Hautatu nahi dituzun programak, eta, gero, sakatu **Gehitu**.

Musika-erreproduzitzailearen konfigurazioa pertsonalizatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Musika erreproduzitzailea**.
2. Hautatu **Ezarpenak**.
3. Doitu konfigurazioa musika-erreproduzitzailea pertsonalizatzeko.

Aukerak	Funtzioa
Atzealdean erreproduzitzen	Musika-erreprodukzioa bigarren mailan ezartzen du, musika erreproduzitzen amaitzen duzunean.
Soinu efektuak	Lehenetsiko den ekualizadore-mota definitzeko balio du dezakezu.
Musikaren menua	Disko-bildumaren pantailan bistaratzeko musika-kategoriak hautatzeko balio du

4. Hautatu **Gorde**.

IM irratik abestiak grabatzea

1. Konektatu emandako entzungailuak telefonoaren entzungailuen hartunera.
2. Menuen moduan, hautatu **FM irratia**.
3. Hautatu ► IM irratia aktibatzeko.
4. Sakatu **Gehiago** → **Grabatu** grabazioa hasteko.
5. Grabazioa amaitutakoan, sakatu **Geldi**. Musika-fitxategia **Irrati klipak** eremuan gordeko da (menuen moduan, sakatu **Nire fitxategiak** → **Soinuak**).



Soilik ahots-grabaziorako diseinatua dago grabazio-funtzioa. Bitarteko digitalek baino askoz kalitate baxuagoa izango du grabazioak.

Irrati-kateak automatikoki gordetzea

1. Konektatu emandako entzungailuak telefonoaren entzungailuen hartunera.
2. Menuen moduan, hautatu **FM irratia**.
3. Hautatu **Gehiago** → **Sintonizazio automatikoa**.
4. Sakatu **Bai** berresteko (beharrezkoa bada).
Irratiak automatikoki bilatzen eta gordetzen ditu eskuragarri dauden irrati-kateak.

Gogoko irrati-kanalen zerrenda konfiguratzeko

1. Konektatu emandako entzungailuak telefonoaren entzungailuen hartunera.
2. Menuen moduan, hautatu **FM Irratia**.
3. Hautatu irrati-kate bat gogokoan zerrendara gehitzeko.
4. Hautatu **Gogokoanetara gehitu**.


Musikari buruzko informazioa bilatzea

Ikas ezazu sareko musika-zerbitzu batera sartzen eta une horretan entzuten ari zaren abestiei buruzko informazioa eskuratzen.

1. Menuen moduan, hautatu **Bilatu musika**.
2. Hautatu **Bilatu musika** zerbitzarira konektatzeko.
3. Zure telefonoa behar bezala erregistratzean, hautatu  aurkitu nahi duzun abestiaren zati bat grabatzeko.



Baliteke zerbitzu-hornitzaile batzuek zerbitzu hori ez onartzea eta datu-basean ez egotea abesti guztiei buruzko informazioa.



Tresnak eta aplikazioak erabiltzea

Ikas ezazu gailu mugikorraren tresnak eta aplikazio osagarriak erabiltzen.

Bluetooth haririk gabeko funtzioa erabiltzea

Hona hemen datuak trukatzeko eta esku libreko funtzioak erabiltzeko haririk gabeko beste gailu batzuekin konektatzeko zure telefonoak duen gaitasunari buruzko informazioa.

Bluetooth haririk gabeko funtzioa aktibatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Bluetooth**.
2. Hautatu erdiko zirkulua, Bluetooth haririk gabeko funtzioa aktibatzeko.
3. Beste gailuei telefonoa bilatzeko aukera emateko, hautatu **Gehiago** → **Ezarpenak** → **Nire telefonoaren ikusgaitasuna** → ikusteko aukera bat → **Gorde**.
Pertsonalizatua hautatu baduzu, konfiguratu telefonoa ikusteko moduan egongo den denbora.
4. Hautatu **Gorde**.

Bluetootharako gaitutako beste gailuak bilatzea eta haiekin lotzea

1. Menduen moduan, hautatu **Bluetooth** → **Bilatu**.
2. Hautatu eta arrastatu erdira gailu baten ikonoa.
3. Sartu Bluetooth haririk gabeko funtzioaren PINa edo beste gailuaren Bluetootharen PINa (baldin bada), eta hautatu **Amaitu**.

Beste gailuaren jabeak PIN bera sartzen duenean, edo konexioa onartzen duenean, biak konektatuta egongo dira.



Gailuaren arabera, baliteke PINik behar ez izatea.

Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez datuak bidaltzea

1. Hautatu bidali nahi duzun fitxategia edo elementua zure telefonoaren aplikazioetatik.
2. Hautatu **Bluetooth bidez bidali** → **Bluetooth** edo hautatu **Gehiago** → **izen txartela** → **Bluetooth**.

Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez datuak jasotzea

1. Idatzi Bluetooth haririk gabeko funtziorako PINa eta sakatu **Onartu** (beharrezkoa bada).
2. Hautatu **Bai** gailuaren datuak jaso nahi dituzula berresteko (beharrezkoa bada).

Urruneko SIM modua erabiltzea

Urruneko SIM modua erabilia, deiak egin edo erantzun ditzakezu autorako esku libreko Bluetooth kit bat konektatuta soilik, telefonoaren SIM edo USIM txartelaren bidez.

Urruneko SIM modua aktibatzeko:

1. Menduen moduan, hautatu **Bluetooth** → **Gehiago** → **Ezarpenak**.
2. **Urruneko SIM modua** → **Gorde** aukeran, hautatu **Aktibatuta**.

Urruneko SIM modua erabiltzeko, hasi Bluetooth konexioa autorako esku libreko Bluetooth kit bat erabilia.



Autorako esku libreko Bluetooth kitak baimenduta egon behar du. Baimentzeko, hautatu gailua, eta, gero, **Baimendu**.

Haririk gabeko sare lokal bat aktibatzea eta sare horretara konektatzea (WLAN)

Ikasi haririk gabeko sare bat aktibatzen eta hara konektatzen.



Bateratu gabeko maiztasuna erabiltzen du gailuak, eta Europako herrialde guztietan erabiltzeko diseinatuta dago. WLAN mugarik gabe erabil daiteke Europa osoan leku itxietan; hala ere, Frantzia ezin da aire librean erabili.

WLAN bat aktibatzea

1. Menuen moduan, hautatu WiFi.
2. Hautatu erdiko biribila, WLAN bat aktibatzeko.



Bigarren mailan aktibatutako WLANak bateria kontsumituko du. Bateria gordetzeko, behar denean bakarrik aktibatu WLAN sarea.

WLAN bat bilatzea eta hara konektatzea

1. Menduen moduan, hautatu **Wi-Fi** → **Bilatu**.
2. Hautatu sare-ikono bat eta Gehitu, eta gehitu konexio-profil bat.




- Sareak IP helbide bat, azpisare-maskara bat, DNS edo atebidearen informazioa behar badu, hautatu Doikuntza gehigarriak.
- WiFi segurtasuna ezarri behar da hautatutako sarearen konfigurazio gisa, eta 802.1x onartzen du (EAP-TTLS, PEAP).

3. Menuen moduan, hautatu Internet edo Sare sozialak edo, bestela, modu inaktiboan, hautatu widget web bat. Zure telefonoa WLAN profila konektatuta konektatzen da sarera.



Internetera beste modu batera sartzeko, aldatu konexio-profila, eta jarri nahi duzuna.

WLAN batera WPS sarbide-puntu baten bidez konektatzeko (WiFi konfigurazio babestua):

1. Menduen moduan, hautatu **Wi-Fi** → **Bilatu**.
2. Hautatu WPS () ikono bat, eta hautatu **Gehitu**.
3. Hautatu **WPS push button** o **WPS enter PIN**, AP gailu-motaren arabera.
4. Hautatu **Konektatu**, eta sakatu WPS botoi bat AP gailuan, 2 minuturen barruan. Bestela, sartu PINa AP gailuan, eta hautatu **Konektatu**, 2 minuturen barruan.

Larrialdiko mezu bat aktibatzea eta bidaltzea

Larrialdi bat duzunean, laguntza eskatzeko mezu bat bidali ahal izango duzu.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Larrialdi mezuak** → **Bidalketa aukerak**.
2. Hautatu **Gorde**, larrialdi-mezularitzaren funtzioa aktibatzeko.
3. Hautatu hartzaillearen eremua, hartzaille-zerrenda irekitzeko.
4. Hautatu **Kontaktuak**, kontaktuen zerrenda irekitzeko.
5. Hautatu nahi dituzun kontaktuak, eta sakatu **Gehitu**.
6. Hautatu telefono-zenbaki bat (beharrezkoa bada).
7. Kontaktuak hautatzen amaitutakoan, hautatu **Gorde** hartzailleak gordetzeko.
8. Hautatu **Errepikatu** goitibeherako menua eta larrialdi-meza zenbat aldiz errepikatu behar den.
9. Sakatu **Gorde** → **Bai**.

Larrialdi-mezu bat bidaltzeko, ukipen-pantailak eta teklek blokeatuta egon behar dute. Sakatu bolumen-tekla lau aldiz.



Larrialdi-mezua bidali ondoren, telefonoaren funtzio guztiak eten egingo dira, (🔒) luze sakatu arte edo sakatu (👉) arte. (👉) sakatzen baduzu, telefonoaren funtzioak erabilgarri egongo dira, baina teklek blokeatuta egoten jarraituko dute.

Mugikor-bilatzailea aktibatzea

Norbaitek telefonoan SIM edo USIM txartel berri bat sartzen duenean, mugikor-bilatzailearen funtzioak kontaktu-zenbakia bidaltzen die bi hartzaileari, telefonoa kokatu eta berreskuratu ahal izateko. Mugikor-bilatzailea aktibatzeko:

1. Menduen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Segurtasuna** → **Arakatzaille mugikorra**.
2. Sartu pasahitza eta hautatu **Baieztatu**.
3. Hautatu **Aktibatuta**, mugikor-bilatzailea aktibatzeko.
4. Hautatu hartzailearen eremua, hartzaile-zerrenda irekitzeko.
5. Hautatu **Kontaktuak**, kontaktuen zerrenda irekitzeko.
6. Hautatu nahi dituzun kontaktuak, eta sakatu **Gehitu**.

7. Hautatu telefono-zenbaki bat (beharrezkoa bada).
9. Kontaktuak hautatzen amaitutakoan, hautatu **Gorde** hartzaileak gordetzeko.
9. Sakatu hartzailea idazteko eremua.
10. Idatzi hartzailearen izena, eta sakatu **Amaituta**.
11. Hautatu **Gorde** → **Baieztatu**.

Gezurrezko deiak egitea

Dei bat jaso duzun itxurak egin ditzakezu bilera batetik ihes egiteko edo nahi ez duzun elkarrizketarik ez izateko. Telefonoz hitz egiten ari zaren itxurak ere egin ditzakezu, aurrez grabatutako ahotsa erreproduzitzen.

Gezurrezko deien funtzioa aktibatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Aplikazioen konfigurazioa** → **Deitu** → **Dei faltsua**.
2. Hautatu **Aktibazioa**, **Aktibatuta** aukeran.

Gezurrezko deiak egitea

Modu inaktiboan, luze sakatu bolumen-tekla beherantz.

Ahotsa grabatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Aplikazioen konfigurazioa** → **Deitu** → **Dei faltsua** → **Dei faltsuaren ahotsa**.
2. Hautatu **Aktibatuta** → **Dei faltsuaren ahotsa** eremuan.
3. Hautatu **Ahots grabaketa**.
4. Hautatu ● grabazioa hasteko.
5. Mikrofonotik hurbil hitz egin.
6. Hitz egiten amaitzen duzunean, hautatu ■.
7. Hautatu ↶, dei faltsuaren erantzun gisa erabiltzeko grabazioa konfiguratzeko.

Gezurrezko deiak egin arteko denbora aldatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Aplikazioen konfigurazioa** → **Deitu** → **Dei faltsua** → **Dei faltsuaren ahotsa** → **Dei zenbatzaile faltsua**.
2. Hautatu aukera bat → **Gorde**.

Ahots-oharrak grabatzea eta erreproduzitzea





Ikas ezazu zure telefonoko ahots-grabagailua erabiltzen.

Ahots-ohar bat grabatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Ahots grabaketa**.
 2. Hautatu ● grabazioa hasteko.
 3. Ahots-oharra grabatzeko, hitz egin mikrofonotik hurbil.
 4. Hitz egiten amaitzen duzunean, hautatu ■.
- Zure ahots-oharra automatikoki gordeko da.

Ahots-ohar bat erreproduzitzea

1. Menuen moduan, hautatu **Ahots grabaketa**→**Nire klipak**.
2. Hautatu fitxategi bat.
3. Erabili ikono hauek erreprodukzioa kontrolatzeko:

Ikonoa	Funtzioa
	Erreprodukzioa eteteko
	Erreprodukzioa abiatzen edo berrabiarazten du.
	Aurreko fitxategira joateko edo fitxategian bertan atzera egiteko (luze sakatuta)
	Hurrengo fitxategira joaten da edo fitxategi berean aurrera egiteko (luze sakatuta)

Irudiak editatzea

Ikas ezazu irudiak editatzen eta efektu dibertigarriak jartzen.



Irudiei efektuak jartzea

1. Menuen moduan, hautatu **Irudi editorea**.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Hautatu **Nire fitxategiak** eta hautatu irudia.
4. Hautatu **Efektuak** → efektu-aukera bat (iragazkia, estiloa, deformatzea edo zati bat lausotzea).
5. Hautatu aplikatu nahi duzun efektua eta sakatu **Onartu**. Irudiaren eremu zehatz bat lausotzeko, mugitu laukizuzena edo doitu laukizuzenaren neurria, eta hautatu **Onartu** → **Onartu**.
6. Amaitutakoan, hautatu **Fitxategia** → **Honela gorde**.
7. Hautatu memoriako kokaleku bat (beharrezkoa bada).
8. Sartu fitxategi-izen bat irudiarentzat, eta hautatu **Amaituta**.

Irudi bat doitzea


1. Ireki irudi bat editatzeko. Ikus “Irudiei efektuak jartzea” eremuko 1 eta 3 urratsak.
2. Hautatu **Doitu** → doitzeko aukera bat (argitasuna, kontrastea edo kolorea).
Irudia automatikoki doitzeko, hautatu **automatikoki berdindu**.
3. Doitu irudia taparekin, nahi duzun bezala, eta hautatu **Onartu**.
4. Gorde editatutako irudia beste fitxategi-izen batekin. Ikus “Irudiei efektuak jartzea” eremuko 6-8 urratsak.

Irudi bat aldatzea





1. Ireki irudi bat editatzeko. Ikus “Irudiei efektuak jartzea” eremuko 1 eta 3 urratsak.
2. Hautatu gezia pantailaren behealdean, eskuinaldean.
3. Hautatu  edo .

4. Biratu irudia edo aldatu tamaina nahi duzun bezala, eta hautatu **Onartu**.
5. Gorde editatutako irudia beste fitxategi-izen batekin. Ikus “Irudiei efektuak jartzea” eremuko 6 eta 8 arteko urratsak.

Irudi bat moztea

1. Ireki irudi bat editatzeko. Ikus “Irudiei efektuak jartzea” eremuko 1 eta 3 arteko urratsak.
2. Hautatu gezia pantailaren behealdean, eskuinaldean.
3. Hautatu .
4. Marraztu laukizuzen bat moztu nahi duzun eremuan, eta hautatu **Onartu** → **Onartu**.
5. Gorde editatutako irudia beste fitxategi-izen batekin. Ikus “Irudiei efektuak jartzea” eremuko 6 eta 8 arteko urratsak.

Ikusizko funtzio bat txertatzea

1. Ireki irudi bat editatzeko. Ikus "Irudiei efektuak jartzea" eremuko 1 eta 3 arteko urratsak.
2. Hautatu gezia pantailaren behealdean, eskuinaldean.
3. Hautatu , ,  edo .
4. Hautatu ikuste-funtzio bat (argazki bat, aurpegiera bat edo irudi bat) edo sartu testua, eta hautatu **Amaituta**.
5. Mugitu ikuste-funtzioa edo aldatu tamaina, eta hautatu **Onartu**.
6. Gorde editatutako irudia beste fitxategi-izen batekin. Ikus "Irudiei efektuak jartzea" eremuko 6 eta 8 arteko urratsak.

Irudiak inprimatzea

Ikasi zure irudiak inprimatzen, USB konexio batekin edo Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez.

Irudi bat USB konexio baten bidez inprimatzeko:

1. Konektatu telefonoaren funtzio ugariko hartunea inprimagailu bateragarri batekin.
2. Ireki irudi bat. ▶ 34. or.
3. Hautatu **Gehiago** → **Honen bidez inprimatu** → **USB**.
4. Konfiguratu inprimatzeko aukerak eta inprimatu irudia. Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez irudi bat inprimatzeko:
 1. Ireki irudi bat. ▶ 34. or.
 2. Hautatu **Gehiago** → **Honen bidez inprimatu** → **Bluetooth**.
 3. Hautatu Bluetootharekin bateragarria den inprimagailu bat, eta konektatu inprimagailuarekin. ▶ 56 or.
 4. Konfiguratu inprimatzeko aukerak eta inprimatu irudia.

Webera argazkiak eta bideoak kargatzea

Ikas ezazu zure argazkiak eta bideoak argazkiak partekatzeko webguneetan eta blogetan argitaratzen.



Baliteke sare sozialen funtzioa erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Gogoko helburuen zerrenda konfiguratzeko

1. Menuen moduan, hautatu **Sare sozialak**.
2. Hautatu **Bai**, gogoko helburuen zerrenda konfiguratzeko (beharrezkoa bada).
3. Hautatu **Onartu**, erantzukizunik ezaren oharra onartzen duzula berresteko.



Sare sozialak funtziora sartzen zaren lehen aldian, berresteko eskatuko dizu.

4. Hautatu zer helburu gehitu nahi dituzun, eta sakatu **Gorde**.

Zerrendak eguneratu hautatu baduzu, helburuko gune berriak automatikoki gehituko dira zerrendara.

Fitxategi bat kargatzea

Argazkiak eta bideoak kargatzeko, argazkiak partekatzeko kontuak izan behar dituzu webguneetan eta blogetan.

1. Menuen moduan, hautatu **Sare sozialak**.
2. Hautatu **Webgunera kargatu**.
3. Aukeratu argitalpen bat egiteko leku bat.

4. Hautatu **Ikutu gehitzeko** → multimedia-fitxategi bat.
5. Idatzi argitalpenaren xehetasunak, eta hautatu **Kargatu**.
6. Sartu erabiltzailearen IDa eta helmugako pasahitza (behar izanez gero).



Hauetatik ere kargatu ditzakezu multimedia-fitxategiak: **Kamera** edo **Nire fitxategiak**. Horretarako, hautatu **Gehiago** → **Webgunera kargatu**

“Sare sozialak” funtzioaren konfigurazioa pertsonalizatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Sare sozialak**.
2. Hautatu **Ezarpenak**.
3. Konfigurazio-ezarpenak

Doikuntza	Funtzioa
Detalles de carga	Azken kargaren xehetasunak ikusteko balio du.
Listas preferidas	Gogoko helmugak aldatzeko balio du.

Doikuntza	Funtzioa
Cambio de tamaño de imagen	Irudiaren neurria aldatzeko balio du, irudia kargatu dadin.
Cargar reserva	Telefonoa konfiguratzeko balio du, programatutako orduan automatikoki helmuga batera kargatzeko fitxategiak.
Administrador de cuentas	Webgune edo blog batean saioa hasteko edo saio ixteko balio du.
Perfiles de Redes sociales	Konexio-profila aldatzeko balio du.
Exención de responsabilidad	Erantzukizun ezaren oharra ikusteko balio du.

Java-rako jokoak eta aplikazioak erabiltzea

Ikas ezazu Java teknologia sarituaren jokoak eta aplikazioak erabiltzen.



Baliteke Java jokoak eta aplikazioak deskargatzea bateragarria ez izatea, telefonoak duen software-motaren arabera.

Jokoak edo aplikazioak deskargatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Jokoak** → **Joko gehiago**. Zerbitzu-hornitzaileak aurrez definitutako webgunera konektatuko da telefonoa.
2. Bilatu aplikazio bat edo joko bat, eta deskargatu telefonora.

Jokoak erabiltzea

1. Menuen moduan, hautatu Jokoak.
2. Hautatu joko bat zerrendan eta segitu pantailako jarraibideei.



Eskuragarri dauden jokoak aldatu egin daitezke zerbitzu-hornitzailearen edo zu zauden eremuaren arabera. Jokoen kontrolak eta aukerak aldatu egin daitezke.

Aplikazioak abiaraztea

1. Menuen moduan, hautatu **Jokoak** → aplikazio bat.
2. Sakatu **Gehiago** aplikatzeko aukera eta konfigurazio ugariko zerrendara sartzeko.

Datuak sinkronizatzea

Ikas ezazu zehaztutako web-zerbitzariarekin kontaktuak, egutegiko gertaerak, zereginak eta oharrak sinkronizatzen. Microsoft Exchange-ren zerbitzari baten bidez kontaktuak, egutegiko gertaerak, zereginak eta posta elektronikoa sinkroniza ditzakezu.

Datuak sinkronizatzea web-zerbitzari batekin

Sinkronizazio-profila sortzeko

1. Menuen moduan, hautatu **Sinkronizatu**.
2. Hautatu **Gehitu**, eta zehaztu profilaren parametroak.
3. Amaitutakoan, aukeratu **Gorde**.

Sinkronizazio bat abiarazteko:

1. Menuen moduan, hautatu **Sinkronizatu**.
2. Hautatu sinkronizazio-profil bat.
3. Hautatu **Jarraitu**, zehaztutako web-zerbitzariarekin sinkronizazioa hasteko.


Datuak sinkronizatzea Microsoft Exchange-ren zerbitzari batekin



Microsoft® Exchange ActiveSync® telefono honetan erabiltzeko, Microsoft® Exchange ActiveSync® erabiltzeko Microsoft Corporation-en baimena duen zerbitzu bat behar duzu.

Microsoft Exchange zerbitzari bat eta sinkronizazio-profil bat konfiguratzeko:

1. Menuen moduan, hautatu **Exchange ActiveSync**.
2. Zehaztu Microsoft Exchange zerbitzariaren konfigurazioa.
3. Hautatu **Gorde**.

4. Hautatu  eta zehaztu posta elektronikora konektatzeko profil bat (beharrezkoa bada).

5. Hautatu posta elektronikora konektatzeko profil bat → **Onartu**.

Zehaztutako Microsoft Exchange-ekiko sinkronizazioa hasiko da.



Baliteke zerbitzarira sartzeagatik kargu gehigarriak ordaindu behar izatea.

Elementu guztiak sinkronizatzen:

1. Menuen moduan, hautatu **Exchange ActiveSync**.

2. Hautatu **Sinc**.



Elementu guztiak sinkronizatuz gero, baliteke kargu gehigarriak ordaindu behar izatea beharrezkoak ez diren elementuak eguneratzeagatik.

Posta elektronikoa soilik sinkronizatzen:

1. Menuen moduan, hautatu **Exchange ActiveSync**.

2. Hautatu **Emaila** → **Sarrerako postontzia** → **Sinc** → **emaila**.

RSS iturriak erabiltzea

Ikas ezazu RSS iturria erabiltzen zure gogoko webguneetako azken albisteak irakurtzeko.

RSS iturriaren helbide bat gehitzea

1. Menuen moduan, hautatu **Internet** → **RSS jarioak**.

2. Hautatu **Gehitu**.

3. Hautatu helbidea idazteko eremua.

4. Idatzi RSS iturri baten helbidea, eta sakatu **Onartu** → **Onartu**.

5. Hautatu **Orain suskribatu**.

RSS iturriak eguneratzea eta irakurtzea

1. Menuen moduan, hautatu **Internet** → **RSS jarioak**.

2. Hautatu **Eguneratu** → iturri bat → **Eguneratu** → **Bai**.

3. Hautatu iturri-kategoria bat → iturri eguneratu bat.



Eguneratze automatikoen funtzioak telefonoa konfiguratzeko du RSS iturria automatikoki eguneratzeko zehaztutako denbora-tartean.

Internet → **Ezarpenak** → **RSS eguneratzea** → **Eguneratze automatikoa** → **Gorde** hautatuta aktiba dezakezu automatikoki eguneratzeko funtzioa.

Uneko posizioa bistaratzea

Ikasi zure uneko posizioaren latitudea, longitudea eta altitudea zehazten, GPS global satellite-sistemaren bidez. Aire librea egon behar duzu satelitea erabili ahal izateko.

Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Telefonoaren konfigurazioa** → **GPS ezarpenak** → **GPS posizioa**.

GPS funtzioa eguneratzea

Ikas ezazu GPS funtzioa hobetzen, GPS datu-fitxategiak deskargatuz. Kokapen-gaitasunaren abiadura eta zehaztasuna hobetu ditzakezu.

Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Telefonoaren konfigurazioa** → **GPS ezarpenak** → **GPS+ ezarpenak** → **Deskargatu datuak** → **Onartu**.




Baliteke kargu gehigarriak kobratzea GPS datu-fitxategiak deskargatzeagatik. Lehenespenez, GPS datuak automatikoki ez deskargatzeko konfiguraturuta dago telefonoa. GPS datuen fitxategiak automatikoki deskargatzeko, erabili automatikoki deskargatzeko funtzioa, hau hautatuta: **GPS+ ezarpenak** → **Deskargatu datuak** → **Deskarga automatikoa** → **Aktibatuta**.

Munduko erlojuak sortzea eta bistaratzea

Ikas ezazu beste lurralde bateko ordua ikusten, eta munduko erlojuak pantailan ager daitezen konfiguratzeko.

Munduko erloju bat sortzea

1. Modu inaktiboan, sakatu **Munduko ordularia**.
2. Hautatu **Gehitu**.
3. Hautatu ordu-eremu bat.
4. Udako ordua konfiguratzeko, hautatu .
5. Sakatu **Onartu** munduko erlojua gordetzeko.

Munduko erlojua bigarren erloju gisa konfiguratua dago.

6. Hautatu **Gehitu** munduko erloju gehiago gehitzeko (3. pausoa).

Pantailari munduko erloju bat gehitzea

Erloju dualaren widget-arekin, zure pantailan bi ordu-eremutako erlojuak ikus ditzakezu. Munduko erloju bat sortu ondoren:

1. Modu inaktiboan, sakatu **Munduko ordularia**.
2. Hautatu **Set as 2nd clock**.
3. Hautatu gehitu nahi duzun munduko erlojua.
4. Hautatu **Definitu.a**

Alarmak konfiguratzea eta erabiltzea

Ikas ezazu alarmak konfiguratzen eta kontrolatzen ekitaldi garrantzitsuetarako.

Alarma berri bat konfiguratzea

1. Menuen moduan, hautatu **Alarmak**.
2. Hautatu **Alarma sortu**.
3. Definitu alarmaren xehetasunak.
4. Hautatu **Gorde**.



Telefonoa itzalita badago, pizteko funtzio automatikoak ezartzen du telefonoa automatikoki piztu eta ezarritako orduan alarma jotzeko.

Alarma bat geldiaraztea

Alarmak jotzean:

- Arrastatu kontrol lerragarria **Gelditu** aukeraraino, alarma geldiarazteko eta ez errepikatzeko.
- Arrastatu kontrol lerragarria **Gelditu** aukeraraino, alarma geldiarazteko eta errepikatzeko, edo arrastatu **Alarma errepikatu** aukeraraino, errepikapen-aldian alarma

isilarazteko.

Alarma desaktibatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Alarmak**.
2. Hautatu **Desaktibatuta** aktibatu nahi duzun alarmaren alboan.

Kalkulagailua erabiltzea

1. Menuen moduan, hautatu **Kalkulagailua**.
2. Erabili pantailako kalkulagailuaren teklak oinarritzko matematika-eragiketak egiteko.

Dibisak edo neurriak aldatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Bihurgailua** → bihurketa-mota bat.
2. Idatzi dibisak edo neurriak eta unitateak dagozkien eremuetan.

Atzera kontatzeko tenporizadore bat konfiguratzea

1. Menuen moduan, hautatu **Temporizadorea**.
2. Konfiguratu atzerako kontaktaren iraupena.
3. Sakatu **Abiarazi** atzerako kontaketa martxan jartzeko.
4. Atzerako kontaketa amaitzean, arrastatu tapa lerragarria **Gelditu** aukeraraino, alerta geldiarazteko.

Kronometroa erabiltzea

1. Menuen moduan, hautatu **Kronometroa**.
2. Sakatu **Abiarazi** kronometroa martxan jartzeko.
3. Hautatu **Bira**, zirkuituko denborak grabatzeko.
4. Amaitutakoan, aukeratu **Gelditu**.
5. Hautatu **Berrezarri**, grabatutako denborak ezabatzeko.

Zeregin berriak sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Ataza**.
2. Hautatu **Ukitu sortzeko**.
3. Idatzi zereginaren xehetasunak eta hautatu **Gorde**.

Ohar berriak sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Memoranduma**.
2. Hautatu **Ukitu sortzeko**.
3. Idatzi oharraren testua eta sakatu **Amaituta**.

Egutegia administratzea

Ikas ezazu egutegiaren ikuspegia aldatzen eta gertaerak sortzen.

Egutegiaren ikuspegia aldatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Egutegia**.
2. Hautatu **Gehiago** → **Egunez egun ikusi** edo **Astez aste ikusi**.

Gertaerak sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Egutegia**.
2. Hautatu **Sortu** → gertaera-mota bat.
3. Idatzi gertaerari buruzko informazioa, beharrezkoa dena.
4. Hautatu **Gorde**.

Gertaerak ikustea

Data zehatz bateko ekitaldiak ikusteko:

1. Menuen moduan, hautatu **Egutegia**.
2. Hautatu data bat egutegian.
3. Hautatu ekitaldi bat xehetasunak ikusteko.

Gertaerak motaren arabera bistaratzeko:

1. Menuen moduan, hautatu **Egutegia**.
2. Hautatu **Gertaeren zerrenda** → gertaera-mota bat.
3. Hautatu ekitaldi bat xehetasunak ikusteko.

Arazoen konponketa

Zure telefono mugikorrarekin arazoren bat baduzu, egiaztatu arazoak konpontzeko prozedura hauek zerbitzuaren profesional batekin harremanetan jarri aurretik.

Zure telefonoa piztean edo erabiltzen ari zarela, kode hauetako bat sartzeko eskatuko dizu:

Kodea	Arazoa konpontzeko, saiatu hau egiten:
Pasahitza	Telefonoa blokeatzeko funtzioa aktibatuta badago, telefonoari ezarri zenion pasahitza idatzi behar duzu.
PINa	Telefonoa lehen aldiz erabiltzean edo PIN kodearen eskaera aktibatuta dagoenean, SIM edo USIM txartelarekin batera emandako PIN kodea sartu behar duzu. Funtzio hau desaktibatzeko, erabili PIN blokeoa menua.

Kodea	Arazoa konpontzeko, saiatu hau egiten:
PUK kodea	SIM edo USIM txartela blokeatuta dago; normalean, PINa behin baino gehiagotan gaizki idazteagatik gertatzen da. Idatzi zerbitzu-hornitzaileak emandako PUK kodea.
PIN2a	PIN2a eskatzen dizun menu batera sartzeko, SIM edo USIM txartelaren PIN2 kodea sartu behar duzu. Xehetasun gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.


Telefonoak SIM txartela sartzeko eskatu dizu.

Egiaztatu SIM txartela behar bezala jarrita dagoela.

Telefonoan “Servicio no disponible” edo “No realiz.” agertzen da.

- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, harrera gal daiteke. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.
- Aukera batzuetara ezin da sartu harpidetu gabe. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Zenbakia idatzi duzu, baina deia ez da gauzatzen.

- Egiaztatu markaketa-tekla sakatu duzula. ().
- Ziurtatu sare mugikor egokian sartzen ari zarela.
- Ziurtatu telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

Beste pertsona batek deitu dizu, baina ezin du zurekin harremanetan jarri.

- Ziurtatu telefonoa piztuta dagoela.
- Ziurtatu sare mugikor egokian sartzen ari zarela.
- Ziurtatu telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

Deitu duen pertsonak ezin dizu entzun.

- Ziurtatu ez zarela ari mugikorraren mikrofonoa estaltzen.
- Ziurtatu telefonoa zure ahotik hurbil dagoela.
- Entzungailua erabiltzen baduzu, ziurtatu behar bezala konektatuta dagoela.

Telefonoak soinu bat egiten du, eta bateriaren ikonoa keinuka ari da.

Materia-maila baxua du. Kargatu bateria edo jarri beste bat telefonoa erabiltzen jarraitzeko.

Deiaren soinuaren kalitatea eskasa da.

- Egiaztatu ez duzula blokeatzen telefonoaren barneko antena.
- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, harrera gal daiteke. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.

Deitzeko kontaktu bat hautatu duzu, baina deia ez da gauzatzen.

- Ziurtatu kontaktuen zerrendan gordetako telefonoa zuzena dela.
- Behar izanez gero, idatzi eta gorde berriro zenbakia.

Bateria ez da behar bezala kargatzen edo telefonoa batzuetan bakarrik itzaltzen da.

- Baliteke bateriaren terminalak zikinak egotea. Garbitu urre koloreko kontaktuak zapi garbi eta leun batekin, eta saiatu bateria berriro kargatzen.
- Bateria osoa kargatzen ez bada, bota bateria zaharra behar bezala eta jarri berri bat.

Telefonoa beroa dago.

Aldi berean aplikazio asko erabiltzen badituzu, telefonoak energia gehiago behar du, eta baliteke berotzea.

Hori normala da, eta ez luke eraginik izan behar telefonoaren bitzta erabilgarrian edo errendimenduan.

Aurkibidea

alarmak

- desaktibatu 70
- gelditu 69
- sortu 69

entzungailuak 31

bateria

- bateria baxuaren adierazlea 19
- instalatu 17
- kargatu 19

blokeatu

- ikus telefonoa blokeatu

telefonoa blokeatzea 29

Bluetootha

- aktibatu 55
- datuak bidali 56

- datuak jaso 56
- urruneko SIM modua 56

bilatu musika 54

kalkulagailua

- ikus tresnak, kalkulagailua
- ### egutegia

- ikus tresnak, egutegia
- ### kontaktuak

- gehitu 33
- kontaktuak bilatu 33
- taldeak sortu 44

bihurgailua

- ikus tresnak, bihurgailua
- ### kronometroa

- ikus tresnak, kronometroa
- ### arakatzailea

- ikus web-nabigatzailea

Facebook 39

horma-papera 28

argazkiak

- argazkiak ateratzeko funtzio aurreratuak 47
- argazkiak ateratzeko oinarritzko funtzioak 34
- bistaratu 34
- editatu 61

RSS iturria

ikus tresnak, RSS iturria
tresnak

- alarma 69
- atzerako kontaketa 70
- tenporizadorea 70
- bihurgailua 70
- egutegia 71
- irudi-editorea 61
- kalkulagailua 70
- kronometroa 70
- mobile blog 63
- RSS iturria 67
- zeregina 71

irudiak

- aplikatu efektuak 61
- doitu 62
- eraldatu 62
- inprimatu 63
- moztu 62

txertatu ikusizko funtzionak 63

Internet

ikus web-nabigatzailea

Java

- aplikazioetara sartu 66
- deskargatu 65
- jokoak hasi 65

gezurrezko deiak

ikus deiak, gezurrezko deiak egin

Deiak

- agendatik 43
- anizkoitzak 42
- azkena markatutakoak 41
- dei galduak bistaratu 41
- deiak egin 30
- deien erantzun 30
- dei gehigarriak egin 42
- dei gehigarriak erantzun 42
- deiak ez onartu 43
- funtzio aurretatuak 41

galdutako deiak markatu 41

gezurrezko deiak egin 59

nazioarteko zenbakiak 43

oinarrizko funtzioak 30

zain dauden deiak berreskuratu 42

zain utzi 42

dei galduak bistaratu 41

larrialdi-mezua 58**Berehalako mezularitza**

ikus mezuak, berehalakoak bidali

Mezuak

- berehalako mezuak bidali 46
- mezu elektronikoa bidali 31
- multimedia-mezuak bidali 46
- mezu elektronikoak bistaratu 33
- multimedia bistaratu 32
- testua bidali 31
- testua bistaratu 32

Multikonferentziak

ikus deiak, dei anizkoitzak

Multimedia

ikus mezuak

MySpace 40

web-nabigatzailea

gogokoenak gehitu 38

hasierako orria hasieratu 37

multimedia-fitxategiak

deskargatu 38

oharra

testu- edo ahots-oharrak

kontsultatu

ahots-oharrak

grabatu 60

erreprouzitu 61

lineatik kanpoko profila 22

profil isila 27

txantiloiak

multimedia 45

testua 45

txertatu 45

FM irratia

abestiak grabatu 53

entzun 35

irradi-kateak gorde 53

irratia

ikus FM irratia

mugikor-bilatzailea 59

Sare sozialak

ikus tresnak, blog mugikorra

munduko erlojua

pantaila duala konfiguratu 69

sortu 69

Erlojua

ikus munduko erlojua

musika-erreprouzitailea

erreproukzio-zerrendak sortu 52

musika entzun 36

pertsonalizatu 52

sinkronizatu 51

Windows Media-ren

erreprouzitailea 51

Samsung Kies 50

Google-ren zerbitzuak 38

Microsoft Exchange-rekin

sinkronizatu 66

sinkronizazioa

abiarazi 66

profil bat sortu 66

Zeregina

ikus tresnak, zeregina

memoria-txartela 20

SIM txartela 17

kontaktu-txartelak 44

atzerako kontaktaren tenporizadorea

ikus tresnak, atzerako kontaktako

tenporizadorea

tenporizadorea

ikus tresnak, atzerako kontaktako

tenporizadorea

testua

oharra 71

mezuak 31

testua idatzi 32

dei-tonua, 27

teklen tonuak, 27

bideoak

argazkiak ateratzeko oinarrizko

funtzioak 34

bistaratu 35

bolumena

deiaren bolumena 30

teklen tonuen bolumena 27

widget-ak 25

WiFi-a 57

Adostasun-deklarazioa (R&TTE)

Nosotros, **Samsung Electronics**

declaramos bajo nuestra responsabilidad que el producto

Teléfono móvil GSM : GT-S5620

al cual hace referencia esta declaración, está de acuerdo con los siguientes estándares y/o otras normativas.

Segurtasuna	EN 60950-1 : 2001+A11:2004
EMC	EN 301 489-01 V1.6.1 (09-2005) EN 301 489-07 V1.3.1 (11-2005) EN 301 489-17 V1.2.1 (08-2002)
SAR	EN 50360 : 2001 EN 62209-1 : 2006
Radio	EN 301 511 V9.0.2 (03-2003) EN 300 328 V1.7.1 (10-2006)

Honen bidez deklaritzen da [oinarrizko irratzi-probak egin direla eta] aurrez aipatutako produktuak betetzen dituela 1999/5/EE Direktibaren oinarritzko eskakizunak.

1999/5/EE Direktibaren 10. artikuluan eta [IV.] eranskinean aipatutako adostasun-balorazioaren prozedura jakinarazitako erakunde hauen parte-hartzearekin egin da:

BABT, Balfour House,
Churchfield Road,
Walton-on-Thames,
Surrey, KT12 2TD, UK*
Identifikazio-marka: 0168



Dokumentazio teknikoa hemen dago:
Samsung Electronics QA Lab.

eta aurrez eskatuta emango da.
(Representante en la UE)

Samsung Electronics Euro QA Lab.
Blackbushe Business Park, Saxony Way,
Yateley, Hampshire, GU46 6GG, UK*
20XX.XX.XX
(jagorpen-lekua eta data)



Yong-Sang Park / S. Manager

(pertsona baimendunaren izena eta sinadura)

*Hori ez da Samsung-en Zerbitzu Teknikoaren Zentroa. Samsung-en Zerbitzu Teknikoaren helbidea edo telefono-zenbakia jakin nahi baduzu, begiratu berme-txartelean edo galdetu telefonoa erosi zenuen dendan.



2008ko Kudeaketaren Kalitatearen
Urrezko Q saria



Q Oro Premio a la Calidad de
Gestión 2008